

UZTARRIA

GUKA

JULIAN UNANUE

SUSTRAIAK ZAINETAN


I N N O V A
AZPEITIA
HORTZKLINIKA

ZURITU HORTZAK
ETA PRESTATU
IRRIBARREA
UDARAKO

Jose Artetxe kalea 5
☎ 943-02 59 55



Miele

20 URTERAKO
DISEINATUTAKO
ETXETRESNA
ELEKTRIKOAK

Baratzeko lantza

**MILAR
LARRAMENDI**
Etxetresna elektrikoak

Julo Urkijo Hiribidea, 16
20720 Azkoitia - Gipuzkoa
943 851 897

**Cooking
& Chef**
Cooking & Chef



Baratzeko plantela behar duzu?

Kimubaten baratzezaintzarako behar duzun guztia aurkituko duzu. Zatoz!
Urrestilla bidea, Azpeitia | 943 15 00 85 | www.kimubat.eus

 **KIMUBAT**
— TALDEA



UZTARRIA 262

2023- UZTAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 5 | Korapiloa Maialen Etxaniz,
<i>Aldi berriak.</i> | 20 | Elkarriketa Manolo Aizbitarte
<i>Maolo, musikaria.</i> |
| 6 | Hementxe bertan Brianna Jara,
Karmelo Etxegarai Ikastolan lanean
aritu den kaliforniarra. | 24 | Guka Norberaren gorputzaz harro,
<i>lodi fobia jomugan.</i> |
| 8 | Nire leihotik Jon Olaizola,
<i>Ustekabeak jarraitzen.</i> | 33 | Lehiaketa |
| 10 | Iritziak Irati Aranguren, <i>Sukaldeko</i>
<i>kontuak</i> ; Hiromi Yoshida,
<i>Seiak hamar gutxitan.</i> | 34 | Erretratua Xabier Rezabal,
arkitektoa. |
| 12 | Elkarriketa Julian Unanue,
Gipuzkoako Baso Elkarteko
lehendakaria. | 38 | Plazan Bazan |
| 18 | Iritzia Oier Etxeberria,
<i>Jardin bat zuretzat.</i> | 40 | Iritzia Miren Segurola,
<i>Segi hedatzen.</i> |
| 19 | Guka gara! <i>Garaian garaikoa.</i> | 42 | Atzera begira Azpeitiko pilotaren
urrezko aroak. |
| | | 46 | Iritziak Amaia Alberdi, <i>Gau gorrian</i>
<i>lasai hegan</i> ; Ignacio Arakistain,
<i>Itzulerako partida.</i> |

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
azpeitia@ukt.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria:

Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Nerea Uranga
Erredaktore taldea:
Maialen Etxaniz
Ihintza Elustondo
Julene Frantzesena

Nerea Uranga

Diseinu arduraduna

Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
Zenbaki honetako
kolaboratzaileak:
Leire Ibar

Olatz Alkorta

Jon Olaizola
Irati Aranguren
Hiromi Yoshida
Oier Etxeberria
Miren Segurola
Amaia Alberdi
Ignacio Arakistain

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2.500 ale



Babesleak:



PUBLIZITATEA



ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 34 47 AZKOITIA
Urtiarie 9 bis 943-15 00 23 AZPEITIA

IRENE ALTUNA
JOMADENA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.irenealduna.com



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: 688 69 29 51

KIRURI



JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfnua.: 943 81 50 08
Faxa.: 943 15 03 62

Tuba
ehelkularitza

Analakuntza:
fisika
jenerala
konizalea

Gestioi lanak
Finan. administratzaia
Gestio. yerbosilarioa

Tfn. 943 157 329 Faxa. 943 157 379
Buzketa nafra. 48-4. 48013 Alkiza (Bizkaia)



**JARRI HEMEN
ZURE
IRAGARKIA**

Aiertza Autoak
Behar duzun konfiantzazko talerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
aiertza@aiertzaautoak.com




EuroTaller MULTIMARKA ZERBITZUA

adi
ARTE ETA
DISEÑO
ESKOLA
ELKARTEA

● **Marraskia eta eskulanak**
(haurrak) 17:30 - 19:00

● **Pintura** 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

● **Talla** 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 20 08
www.adiadina@gmail.com
Matrikula urte berriaren zabalik

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak

Urteko: 618 96 49 95 / Jan. 649 12 02 71
ikaargilana@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Aldi berriak



MAIALEN ETXANIZ

Garai berriak omen datoz edo omen dira. Belaunaldi berriak, ziklo berriak, aldi berriak. Batzuentzat aldiak urteurrenekin hasten dira edo ospakizunekin edo tragediekin. Lege aldaketekin edo eskubideen galerekin. Udal eta foru hauteskundeekin ireki zen zikloa batzuentzat, beste batzuentzat duela hamar urte, edo agian duela bost urte hasi zen bide berria, eta beste batzuentzat uztailaren 23an hasiko da, akaso. Garaiak ez dira egun batetik bestera aldatzen, eta aldiak aldi egiten dituzten askotariko faktoreak daude, izan sozialak, politikoak, ekonomikoak edo kulturalak, eta denak batera. Aldiak aldi, aldi guztiek dituzte alde ugari.

Azken asteotan sarri entzun dut garai beltzak datozela. Udal eta autonomia hauteskundeen emaitzek sortu dute horrelako sentipen bat, otsoa datorrenarena. Espainiako hauteskundeetako testuinguruak beldurra sortzen dio hainbati, eta ez du ulertzen zer ari den gertatzen. Nola da posible faxistak gobernuan jartzea? Nola da posible hau edo beste. Eta bai, posible da. Baina nola ez da posible izango? Garai beltzak izan badira dagoeneko. Alde guztietara begiratu besterik ez dago. Hauteskunde garaian eta garaitik kanpo foku mediatikoa non jartzen den begiratzea besterik ez dago. Boterea eta presioa non... Batzuentzat gauza batzuk soilik gertatzen dira, eta beste batzuk nahieran kontatzen dituzte. Ez naiz Espainiako hedabideez soilik ari, Euskal Herrian ere alde batzuk soilik kontatzen dituzten hedabideak baitaude.

Batzuentzat aldi berria izango da euskalduna, feminista, independentista eta sozialista, baina aldi berria faxista ere bada eta antikomunista eta arrazista eta transfoboa. Batzuentzat izango da nazionalista, espainolista, zentralista, inperialista, matxista, sexista... baina aldi berriak baditu beste alde batzuk ere. Agian ez dira atseginak askorentzat, batzuentzat deserosoak dira, amorragarriak akaso; orain artekoak zalantzan jartzen dituen aldea ere badago, gobernuek urteetan hartutako erabakiak zalantzan jarri dituztenak; instituzioetan hartzen diren erabakiek, izan feminismoari dagokionez, izan etxebizitzaren auziari dagokionez, lan arloan, gizarte politikan... dituzten eraginak aztertu dituztenak. Faxismoa borrokatzeko aukerak pentsatzen ari direnak, euskarak izan duen norabide aldaketa aztertu dutenak, etxebizitza politikek izan ditzaketen eta dituzten mugez pentsatzen dutenak, emakumeen merkantilizazioa salatzen dutenak, emakumeen hipersexualizazioaz kezkatu direnak... Horiek guztiek ere osatzen dute aldi hau, eta faxismoak nola izan dezateke eragina gizarteko zenbait sektoretan. Aldi berri hau ezin da ulertu eta ezin da kontatu alde guztiak begiratu gabe. ■■■

**ALDI BERRI HAU
EZIN DA ULERTU
ETA EZIN DA KONTATU
ALDE GUZTIAK
BEGIRATU GABE**

Brianna Jara: "Euskaraz bizitzeko aukera izan dut"

TESTUA: **UNAX LARRAÑAGA**

ARGAZKIA: **UTZITAKOA**

Azpeitian eta Beizaman zortzi hilabeteko egonaldia egin ondoren, duela hilabete itzuli zen etxera Brianna Jara (Beaumont, Kalifornia, 2000). Euskal Herrian egin duen egonaldian, Karmelo Etxegarai Ikastolan ingeleseko hizkuntza laguntzaile lanetan aritu da, eta Azpeitiko Euskaltegian euskara ikasteko denbora ere izan du. Hark dioenez, "bertako jendeak" egin du haren egonaldia eder.

Nolatan iritsi zinen Azpeitira?

Kaliforniako San Bernardino Unibertsitatean ari naiz ikasten, eta hizkuntzan eta kulturaren oinarritutako elkartruke programan eman nuen izena. Onartu nindutenean, hainbat lekuren artean hautatu behar izan nuen, eta nire aukeren artean zegoen Euskal Herria. Interneten begiratu nuen, eta mendiz eta landarez jositako toki bat zela ikusi nuen, baita bertako jendea oso aktiboa zela ere. Irakurri nuen guztia gutxiegi zen lekua irudikatzen; horra iritsi nintzenean ulertu ahal izan nuen paisaia zeinen berdea den eta bertako jendeak mendira joateko zer-nolako grina duen. Zur eta lur geratu nintzen, adibidez, Xoxote igotzen ari nintzela, aita bat umea bizkarrean hartuta mendian gora ikusi nuenean.

Zenbat denbora egin duzu Euskal Herrian?

2022ko urriaren 1etik 2023ko maiatzaren 31ra arte egon naiz Euskal Herrian; zortzi hilabetez, guztira. Hiru familiaren etxeetan egon naiz; horietako bi Azpeitikoak ziren, eta bestea, Beizamakoa.

Zer egin duzu egonaldian?

Karmelo Etxegarai Ikastolan aritu naiz ingeleseko hizkuntza laguntzaile lanetan, Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetako ikasleekin. Nire lana ingeleseko ikasgaien laguntza eskaintzea zen, gehienetan talde txikiekin mintzapraktika ariketak egiten edota entzumenezko ulermena lantzen. Lanetik kanpo, Azpeitiko Euskaltegira joaten nintzen astelehenetan, astearteetan eta ostegunetan, eta ostiraletan, berriz, gitarra ikastera.

Nolakoa izan da egonaldia?

Zorte ona izan dut tokatu zaizkidan familia anfitrioeekin; izan ere, ongietorri bikaina egin zidaten. Egin dudana egonaldia esperientzia ezin hobea bilakatu dute. Herriko kafetegiak, tabernak eta jatetxeak erakutsi dizkirate, eta inguruko mendiak, hondartzak, hiriak eta Euskal Herri oso txoko ugari bisitatzeko aukera izan dut. Bertako jateko goxoak ere prestatu dizkirate, eta haien lagunak eta familietako kideak aurkeztu ere bai. Bigarren etxea izan banu bezala sentitu naiz Euskal Herrian. Ezin dut hitzekin adierazi zeinen ongi pasatu dudana jende berria ezagutzen eta zenbat gozatu dudana haiekin pasatutako denbora.

Ongi etorria sentitu al zara Azpeitian?

Bai! Ezin dut ongi azaldu zeinen zoriontsua izan nintzen Azpeitian. Herritarrek egin zuten nire egonaldia hain eder.

Zer gustatu zaizu Azpeititik gehien?

Egin ditudan lagunak, herriko saltokiak, kafea, gazta, mendiak, mendi gailurretako lainoak, txakolina...

Zer ezberdintasun daude Azpeitian eta Kalifornian bizitzearen artean?

Azpeitia oso berdea da, natura ugari du inguruan. Herrian oinez ibil zaitezke, gainera, Beaumonten ez bezala; han autoz joan behar izaten dut toki guztietara. Oso gustuko nituen Azpeitian oinez ibiltzea eta mendira igotzea.

Euskara ikasteko denbora ere izan duzu, ezta?

Bai! Asko ulertzen dut, baina oraindik asko geratzen zait ikasteko. Euskaltegira joan nintzen sei-zazpi hilabetez, astean sei orduz. Lan handia izan da, baina baliagarria ere bai. Batzuetan lotsa ematen zidan euskaraz hitz egiteak, ez baina oso hartzun ona. Gainera, Euskal Herriko herri bakoitzean desberdin hitz egiten da euskara. Zorte ona izan nuen, irakasle bikaina egokitu baitzitzaidan Euskaltegian. Bestalde, Azpeitian eta Beizaman euskaraz bizitzeko eta euskara arnasteko aukera bikaina izan dut, eta horri esker, azkarrago ikasi ahal izan dut. Orain, praktikatzen jarraitzea da erronka.

Euskal Herrira itzuliko al zara?

Zalantzarik gabe, itzuliko naiz. ■■■



Ustekabeak jarraitzen



ARGAZKIA ETA TESTUA: JON OLAIZOLA

Ordulariaren menpe, presaka, gelditu gabe bizi garen garai hauetan, inguratzen gaituen guztia kontrolpean edukitzen saiatzen gara sarritan.

Horren ondorioz, askotan, ez diegu ustekabeko momentuei azaleratzeko aukerarik ematen. Egunero jarduera berberak eginez, emaitz berberak azaltzen zaizkigu.

Aldizka, aldaketa besarkatzea beharrezkoa da, bidetik desbideratuz atseden hartzea eta inguruak begiestea ez baita denbora galtzea, barne onura irabaztea baizik.

Natura sarri bistaratzen da eder, ikusi nahi duenarentzat soilik, ordea. ■■■







IRATI ARANGUREN

Sukaldeko kontuak

Igande goizeko 07:30ak dira, esnatu eta ohetik jauzi egin dut matxinsaltoaren pare, halako grina sartu baitzait barrenean hainbat egunetan esku artean dabilkidan liburuko azken orriak irakurtzeko. *Plazer bat izan duk Benito!*, dio izenburuak, eta halaxe izan da. Handik sukaldara ondorengo jauzia.

Haragia egosteko plana dugunez, ekin egin diot. Eltzea urez bete eta azenarioa, tipula, porrua, haragia eta hezurak gehitu ondoren, sutan jarri dut. A zer nolako kolore festa!

Zigor Iturrietak *Txoriene* saioan aipatu zuen gogoko zuela lagunak etxeetara joatean, ezkutuan, hozkailua irekitzea bertan zer zegoen ikusteko. Hozkailuko produktuek eta haren txukunketak pertsonari

buruzko informazio asko ematen duela esan zuen. Harrezkero, behin baino gehiagotan galdetu izan diot neure buruari hozkailuko atea ireki eta barrura so: "Zer esango ote luke Zigorrek gaur hau horrela ikusita?". Badira egunak nire etxeko produktuei begira harro sentitzen naizenak; beste batzuetan, aldiz, jabetzen naiz sukaldariari grazia handirik ez lioketela egingo.

Hasi gaitezen hozkailuaren barruko tiraderatik: bertan berdurak eta frutak daude.

**PRESTATZEN
ZEIN JATEN
GEHIAGO GOZATZEN
DUT JAKIA
GERTUKOA BADA**

Berdurei dagokienez, aukera eskasa dago: porruak, azenarioak eta brokolia. Neguan gurasoen baratzeakoak izan baditugu ere, oraingoak erosi egin nituen –Iturrietak ez ote luke izozkailua irekiko? Han bai ikusiko lituzke etxeko kalabaza eta baina mordoxka!-. Frutei dagokienez, laranjak, kiwiak, sagarrak, platanoak, mertxikak eta gereziak daude. Auskalo non sortuak diren, baina herrian Whatsappez enkargatu eta erosiak dira. Gainera, mimoz, kartoizko kaxetan sartzen dituzte frutak.

Jarrai dezagun hozkailuko apaletan goraka. Gazta: hasitakoa eta hasi gabea. Biak Azpeitiko artzainenak, bata Idiazabal jatorrikoa, bestea etiketatuta gabea. Biak primerakoak ondoan duten neuk eginiko irasagarrarekin

HAUXE BAI JENEROA!



jateko. Gertu, haragia, herrian Whatsappetik enkargatu eta erosia. Maite dut harategi honetan jakiak biltzeko darabilten papera, ohiko plastikoaren ordez, konpostagarria den papera du bilgailuak. Parez pare, atean, supermerkatuan erositako piperren eta oliben irekitako potoak, asteartean azokan erositako arrautzak eta etxean ontziratutako atuna.

Darraigun, edarien txanda. Iturriko uda freskatzen –amonak mendikoa erabili ohi badu ere, guk ez diogu ohiturari jarraitu-. Etxeko sagardoa –aurten, sagar zukua egiten probatuko ote dugu?-. Ondoan, Getariako txakolina, Getarian ekoitzia; hori Gabonetako otarre batean iritsi zen. Eta edarien lerroan azkena, esnea; jogurtak egiteko atzo baserritik ekarritakoa.

Amaitzeko, goi-goiko apalean, aitaren baratzeko uraza oso bakarti dago. Noiz iritsiko ote zaizkio tomate gorriak eta piper berdeak ondora?

Hozkailutik sutara edo mahaira egingo dute bidea produktu horiek. Prestatzen zein jaten gehiago gozatzen dut jakia gertukoa bada, erosketa erosoa egin bazait, euskaraz erosi badut eta prozesuan ahalik eta hondakin gutxien sortzen saiatu banaiz.

Salda egin da dagoeneko; eltzea garbitu eta esnea egosten jarri behar dut, beraz, banoa. Ohiturak, sinesmenak, familia egiturak, bilguneak eta abar aldatuz badoaz ere, antzina bezala, jarrai dezatela etxeetako sukaldeek eta hozkailuek gure transmisio, nortasun eta baloreen oinarriak eraikitzeko txoko izaten. ■■■

HAN ETA HEMEN



HIROMI YOSHIDA

Seiak hamar gutxitan

Hizkuntzak aldatzen joatea prozesu naturala da. Hala ere, batzuetan harritu egiten gara zenbait aldaketaren aurrean. Japonieran gertatzen ari dena kontatzera noa. Aurreko batean, 19-20 urteko ikasleei esan nien –japonieraz esandakoak euskaratuta jarriko ditut–: "Datorren astean seiak hamar gutxitan bukatu behar dugu klasea, ez?". Eta ikasle batek: "Ez, ez, bostak eta berrogeita hamarrean bukatu behar dugu". Beraz, horrek ez zuen ulertu esan nuena. "Seiak hamar gutxitan"-ek zer esan nahi duen jakin arren, ez badu erabiltzen, ez zitzaien horren harrigarria egingo. Baina hark ez zekien. Gero, 19-24 urteko 40 bat ikasleri galdetu nien "seiak hamar gutxitan"-en esanahia, eta haietako erdiek ez zekien zer esan nahi zuen, eta besteek jakin bai, baina ez omen dute modu horretan inoiz esaten. Uste dut gazteek orduak modu dijitalen ikustera ohituta daudela, eta hor dagoela fenomeno horren gakoa. Nire belaunaldiko askok ordua esatean bi orratz dituen erloju *klasikoa* irudikatzen dugu buruan, eta horregatik ez dugu galtzen "gutxitan" esateko modua, nire ustez. Kontua da euskaraz ere antzekorik gertatzen ari ote den. ■■■



"Basoaren bizitzara lotzeak norberari ere bizitzen laguntzen dio"

JULIAN UNANUE GIPUZKOAKO BASO ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Gipuzkoako Baso Elkarteko lehendakaria da Unanue, baita Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Baso elkarten konfederazioko presidentea ere. Banda marroiaren gaitzak erabat baldintzatu du basoen egoera, eta kexu da erakundeek ez dutelako sektorea behar beste lagundu. Zuhaitzek zer garrantzi duten gogorarazi du. Testua: **Ihintza Elustondo**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Aratzerrekan, sekuoiez betetako basoan, han ernaltzen ari den bizitzari erraparatzten dio Julian Unanuek (Azpeitia, 1948), miresmenez: zuhaitzei, haien artean sortzen diren itzalei, inguruan loratzen ari diren landareei, gainean dabiltzan hegaztiei, atzetik entzuten den erreka hotsari... Etxean bezala dago, bakean. Endaizpe baserrian jaioa da, eta betidanik izan du lotura estua lurraarekin. "Basoa nire bizitzaren oinarrietako bat da". Baso jabeak elkarteko beharrak bultzatuta, Gipuzkoako Baso Elkartea sortu zuten duela 40 urte inguru, eta elkarte horren sortzaileetako bat izan zen Unanue. Gaur egun, elkarteko presidentea da, baita Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Baso elkarteetako konfederazioko lehendakaria ere. Erakunde horien helburua da baso jabeak defendatzea eta haiei aholkuak ematea. "Babesa dira baso jabeentzat", dio.

Zer ardura dituzu Gipuzkoako Baso Elkartean?

Zuzendaritzaren bilerak deitzea eta zuzentzea nire ardura da; elkarteko kideek dituzten arzoai irtenbidea ematen saiatzea, elkarteko langileekin batera; instituzioekin bilerak izatea –Eusko Jaurlaritzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin nahiz udalekin–... Sektoreko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea ere nire egitekoa da: konfederazioarekin, Baskegurrekin, USSE

erakundearekin, Biotermiarekin, Basoa fundazioarekin... Badaukat non entretenitua.

2.800 bazkide ditu elkartek; horietatik 1.400 baserritarak dira, 160 familia inguru Azpeitikoak, eta 420tik gora Urola bailarakoak. Bazkide asko al dira?

Kontuan izan behar da lehen sektorerako bideratutako Gipuzkoako lurren %80 jabetza pribatukoak direla, eta guztira, 9.000 lurjabe direla. Horietatik 3.000 inguru baldin badira elkarteko bazkide, gutxi gorabehera kopuru osoaren herena da. Sektore gutxitan egongo da horrelako ordezkaritza. Gainera, 2.800 jabe horienak dira baso guztien %50 baino gehiago; beraz, baso jabe handiak elkarteko kide dira.

Datuen arabera, Espainiako Estatu guztia kontuan hartuz gero, Gipuzkoa da oraindik ere zuhaitz masa portzentaje handiena daukan lurraldea. Zein da Gipuzkoako basoen egoera?

Azken urteetan, Gipuzkoako egoera asko markatu du intsinis pinuaren gaitzak, banda marroiak; izugarrizko sarraskia eragin du gaitz horrek, eta etorkizunera begira, halako hutsune bat sortu du. Zuhaitz horrekin inbertsio bat eginda zeukan jendeak sekulako kaskarrekoa hartu du; Gipuzkoako baso jabeen galera 120 milioi eurotan kuantifikatu dute. Alde horretatik, ziurgabetasun handia dago. Gainera, aldaketa klimatikoa dela eta, zalantzak ditu jendeak; ez dakite zuhaitz bat ala bestea landatzea komeni den, zein egokituko den hobeto egoera berrira. Zuhaitz baten bizitza



zehaztea oso gauza zaila da, eta inbertsio bat egiteko, pentsatu egin behar duzu zuhaitz horrek hemendik 40 urtera zer eboluzio izango duen, baina sekula ez daukazu bermerik.

Bestalde, asko aipatzen dute baso jabeak zaharrak garela, baina uste dut jabetza askotan izaten dela zaharren kontua; zaharren eskuetan egoten da, eta horiek joatean jasotzen dute gazteek zaharrek uzten dutena. Badirudi gu garela arazoa daukagunak, baina enpresetan eta beste leku askotan ere gauza bera gertatzen da. Eta gehiago esaten ausartuko nintzateke: basoan, 55 urtetik gorakoa zahartzat hartzen da, eta datuen arabera, 83-84 urtekoa da pertsona baten batez besteko bizitza; 55etik 84ra koska dezentea dago. Norbaitek 55 urterekin jarri baldin badu basoa, berak aprobetxatzeko aukera eta dena izan dezake.

Azkenean, inor ez da bizi basotik. Basoa inbertsio bat dela esan daiteke, baina horren etekinak, normalean, ez ditu jasotzen basoa jarri duenak, haren ondorengoei baizik, baldin badaude. Nire ustez –eta askok pentsatzen dugu horrela–, okerra da geure buruarekin bakarrik pentsatuta, etekinekin soilik pentsatuta, lan egiten dugula pentsatzea. Hori ez da egia. Basoa jartzen duenak etekinei baino zerbait gehiagori begiratzen ez badio, beste lotura bat ez baldin badauka lurrarekin, arbasoekin, etekin ekonomikoak ez diren beste osagai batzuk ez baldin badaude... Horrela oso nekez jarri liteke basoa. Gizarte honetan, inork ez du inbertitzen 40 urte barru jasoko duen etekin batean, ezta basoan ere, zerbait gehiago behar da, nahiz eta sinpleki pentsatu izan den gure etekinei begira gaudela. Halako kontuak entzun behar izaten ditugu egunero, baina hori ez da horrela.

Orduan, zergatik jartzen du jendeak basoa?

Lurrarekiko lotura bat daukalako; basoa hazten ikusten duzu, mugitu egiten da, irabazi edo galdu egiten du, bizia da... Beste kasu askotan, herentziaz jasotako zerbait izaten da, eta halakoetan lotura bat izan ohi da aurrekoekin, arbasoekin: "Niri utzi zidaten, nik ere utzi beharko diet". Beste batzuei, zerbait edukitzeagatik, gustatu egiten zaie basoa edukitzea, mendian txabola bat edukitzea bezala. Diru asko gabe egin daiteke inbertsioa mendian: azkenean, auto koskor batek balio duen diruarekin mendi pusketa dezentea erosi eta jartzen duzu martxan. Mendia ez da garestia.

Lotura emozional bat behar da, beraz.

Bai, hori da. Alde emozional hori edo nolabaiteko lurrarekiko sentimendu bat.

Basogintzan kostatzen ari da belaunaldi aldaketa gauzatzea. Gazteek ez dute basoarekin jarraitzeko gogo handirik... Gehiago al daude momentuko etekinei begira?

Gazteak oso desafektatuta daude basotik, hori egia da, baina baten batek herentzian basoa uzten duenean, balio bat baldin badu, gazteak akordetzen dira horrekin. Kontuz! Mendian ez daude sobratutako pinudi ederrak, euro pila bat balio dutenak, jabea ez dakizulako nor den, gazteek ez dutelako ezer jakin nahi. Beste kontu bat da beste batek egiten duen artean zuk ez duzula basoan lan egingo, eta gero, herentzian jasotzen duzunean, etekin horren ondoren berriro horri segitzeko gogoia daukazu ala ez daukazu.

Zergatik animatuko zenuke jendea basoan aritzera? Zuri zergatik gustatzen zaizu?

Basoz inguratutako baserri batean jaio nintzelako, seguruenik. Kalean jaio izan banintz eta fabrika batean lan egin izan banu, beharbada ez zitzaidakeen hainbeste gustatuko. Baina giro horretan jaio nintzen, eta horrek erakartzen nau. Ekonomia aldetik, gaur egun inor ez da ari basoan inbertitzen. Basoak izan zuen bere garai ekonomiko oso inportantea. Zenbaki batzuk emango bagenitu, askok ez lituzkete sinetsi ere egingo. Orain dela 60 urte, baso pusketa ez oso handi bat edukitzea nahikoa zen Azpeitian pisu bat erosteko. Gaur ez duzu auto bat ere erosten. Intsinisari "urre berdea" esaten zitzaion, eta zerbaitegatik. Intsinisak diru asko eman du.

Orain ere badaude horretan aritzen diren enpresak, ezta?

Enpresek egurra eraldatu egiten dute edo basoetan lanak gauzatzen dituzte, baina beren helburua ez da baso jabe izatea. Dena den, baso jabeok enpresa horiek beharrezko ditugu basoaren zikloi eusteko.


Zuri zer ematen dizu basoak?

Gozatu egiten dut basoan. Nahigabeak ere emango dizkizu basoak; haizeak bota dizula, edo orain gertatu den bezala, gaitz bat etorri dela eta dena alferrik galdu zaizula. Baina basoak aktibo mantentzen zaitu, basoa ez da gauza geldi bat: txoriak habia egin duela, zuhaitz berri bat deskubritu duzula... Bizitza da, basoa gauza bizi bat da. Bizitza horretara lotzeak uste dut norberari ere bizitzen laguntzen diola.

Pinuaren gaitzak kalte handia eragin die baso jabeek.

Horren aurrean, zer bultzatu du Gipuzkoako Baso Elkartek? Zer landatzea komeni da?

Zer landatu? Inork ez dizu zuhaitz batekin bermerik ematen. Intsinisaren tankerarik handiena duena, dudarik gabe, itsas pinua da. Baina



**"GIPUZKOAN IZUGARRIZKO
SARRASKIA ERAGIN DU
INTSINIS PINUAREN GAITZAK"**

**"ETEKIN EKONOMIKOEI SOILIK
BEGIRATUTA, NEKEZ JARRI LITEKE
BASOA; BESTE ZERBAIT BEHAR DA"**

**"BASOEN ABANDONOA HITZ
EGITEN DUTE ERAKUNDEEK, BAINA
SUSTRAIARI INORK EZ DIO HELTZEN"**

inguruotan gehien landatu dutena sekuaia da. Horrez gain, kriptomeria, itsas pinua eta eukaliptoia ere landatu dituzte, baina sekuaia baino gutxiago. Intsinisaren tankera handikoa da, era berean, pinu horia, baina horrek gutxi kuajatu du. Hortik aparte, hostozabalak ere landatu ditu jendeak: pagoa eta haritza batez ere, lizarra eta gaztaina gutxiago, eta beste espezie batzuk, baina ez kontuan hartzeko kopuruetan.

Administrazioak nola erantzun du intsinisaren gaitzaren aurrean?

Inork ez du ukatzen banda marroiarena hondamendi bat denik. Egia da, berez, badaukala tratamendua gaitz horrek. Tratamedua, ordea, ezin da lurretik egin, hegazkin bidez baizik, eta horretarako, baimen bat behar da; izan ere, aireko tratamenduak salbuespen kasuetan bakarrik onartzen ditu Europak. Esaten dute beste herrialde batzuetan ere badaudela antzeko gaitzak, eta horietan sistema hori baliatzen dutela gaixotasunak kontrolatzeko. Hemen ez dago tratamendu hori egiteko baimenik; baso jabe bezala, erremedioa daukan zerbait konpondu ezina tratamendu hori egiten uzten ez dutelako... Hori dena jan behar izateak ere badu bere misterioa. Horrez gain, hondamendi bat gertatzean, administrazioak beti lagundu izan du: uholdeen kasuan, esaterako. Eta baso jabeok bizitzen ari garena ere hondamendi bat da. Orain dela hiru-lau urte arte, laguntza eman izan dute erakundeek; ez baso jabe bakoitzaren galeraren adinakoa, baina bai laguntza bat. Bizkaian eta Araban orain ere ematen dute, baina Gipuzkoan kendu egin zuten. Hori atzerapauso handia da, etsipena sortzen du. Izan ere, zuk zenuen ondare bat galdu duzu, eta berriro jarri behar duzu, baina ez daukazu inolako laguntzarik. Lehen, kalte ordain bat ematen zizuten, eta kalte ordain horrekin batera, derrigortzen zintuzten bi urte barru berriro zuhaitzak landatzera. Jendeak hori kobratzen zuenean, landaketa egin egiten zuen. Laguntza kendu egin zuten, ordea, eta lehen zalantzan dagoenarentzako, atzera egiteko eta mendia bere horretan uzteko arrazoi bat gehiago da hori. Sektorea ez da lagundu lagundu behar zen bezala. Basoen abandonoaz hitz egiten dute, eta badirudi baso jabeak zaharrak garelako gertatu dela hori; horrelako aitzakiak bilatzen dituzte, baina sustraiari inork ez dio heltzen.

Basoak behar-beharrezkoak dira ekosistemarako. Zenbaterainoko garrantzia dauka basoa osasuntsu mantentzeak ingurumenerako?



Basoek uraren zikloa arautzeko funtzioak betetzen dituzte; berebiziko garrantzia dute klima aldaketaren aurkako borrokan; animalien eta biodibertsitate erreserba gisa sekulako ahalmena dute; lurzorua kalitatea hobetzen eta higadura kontrolatzen dute; ibai buruen, urtegien eta giza populazioen defentsan laguntzen dute; uholde eta hondamendi naturalen aurrean ere bai; eta zura, baso biomasa eta beste hainbat lehengai naturalen eta berriztagarrien ekoizpenean laguntzen dute.

Jendea kontziente al da horretaz?

Ez dut uste. Jabeak egurrak ematen dion diru hori bakarrik kobratzen du. Zuhaitzek CO₂a xurgatzen dutela eta, beste hainbat onura eragiten dituzte ekosisteman, baina onura horiek ez ditu baso jabeak kobratzen. Norberak egurrak ematen duena soilik kobratzen du, baina hori onura osoaren %15 dela kalkulatu dute. Onuraren beste %85 hori debalde joaten da beste

norbaitentzat. Alde horretatik, uste dut badaukagula eskubidea zerbait eskatzeko, laguntza eskatzeko.

Nire ustez, esaten ez dena eta administrazioak argi eta ozen esan beharko lukeena da gure aktibitatea beharrezkoa dela, herri honetan beharrezkoa dela egurra sortzea, eta arlo horretan lanean ari direnek beren babesa izango dutela. Diskurtso horren falta sumatzen dut. Eta ogibideari prestigioa ematea ere behar da, gazteak erakartzeko; lanbidea ondo baloratuta baldin badago, jendea erakarriko du. Prestigio eta laguntza hori behar du basoan lanean ari denak biharko basoak produktiboak izatea nahi baldin badugu. Administrazioak asko aipatzen du oso kezkatuta daudela, baina ez dut uste baloratzen gaituenik; ez baso jabeak, ez basoa bera.

Eukaliptoarekin ere izan zen eztabaida.

Boladak izaten dira gauza guztiekin. Eukaliptoak oso gaizki ikusita dago. Esaten dute eukaliptoak

"BASO JABEAK EGURRAK EMATEN DUEN ETEKINA SOILIK KOBRATZEN DU, BAINA HORI ONURA OSOAREN %15 DA"

"ZUHAITZ BAT LANDATU BEHARKO BANU, GERNIKAKO ARBOLAREN KIMU BAT LANDATUKO NUKE"

lur guztia jaten duela... Lehen, intsinisarekin diskurtso berbera erabiltzen zuten. Eukaliptoaren bueltan, zuhaitzen bueltan, ez dago eztabaida sanorik. Eztabaida sano bat izateko oinarri zientifikoak behar dira. Zuhaitza bere kasa ezin da txarra izan. Nik ez dut hitz egingo eukaliptoaren alde, baina ezta kontra ere; zuhaitz bat da. Zuhaitz batetik lortu nahi duzunaren arabera, jarriko duzu pagoa edo eukalipto; izan ere, ez da gauza bera bi zuhaitz horiek eskaintzen dizutena. Zuhaitz bakoitzak eskaintzen duena eskaintzen du.

Uste duzu eukaliptoak baso jabeentzat aukera bat izaten jarraitzen duela?

Noski baietz. Gaur egun etekin ekonomikoa berma dezakeen zuhaitz bakarra dela esango nuke, nahiz eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hala aginduta, zuhaitzak 25 urte izan arte, ezin den moztu orain. Baina, lehen, 15 urterekin edo, papererako bota izan da eukalipto, eta 15 urte, 40rekin konparatuta, biharko kontua da. Nik ez dut inor animatu eukalipto jartzera, ez jartzera ere ez; bakoitzak ikusten du zer egiten duen. Baina zuhaitz kaltegarria dela esatea... Nik ez dut sinesten horretan.

Azpeitian baso asko al dago? Zein da Azpeitiko basoen egoera?

Azpeitian baso asko dago, bai. Azpeitian portzentaje altua da basoarena. Azpeitiko lurren

azalera, guztira, 6.924 hektareakoa da, eta horien %94 lehen sektorerara bideratuta daude. Gainera, kopuru osoaren %63 da basoa –4.339 hektarea–; %6 sastrakadiak dira, %3 harri arteak, %22 landa eremua eta %5 eraikinak. Basojabeak ere asko daude. Intsinisaren gaitzak gehien eragin dion zonaldea da Urola, eta Azpeitia ere bai. Hala eta guztiz, Urola bailaran botatzen den basoa, portzentaje oso altuan, berriro landatzen da. Badago baso kultura.

Abandonatutako baso gutxi dago, beraz, inguruotan? Bai, gutxi.

Eta Gipuzkoan?

Askoz ere gehiago. Horrek duen arriskurik handiena suteena da. Izan ere, sua eragiten du zaindu gabeko basoaren azpian sortzen den zikinak edo oteak. Horrek egiten du sua kontrola ezinezkoa bilakatzea.

Esaten dute bizitzan herritar guztiek landatu behar luketela zuhaitz bat. Ondorengoei uzteko zuhaitz bat landatu behar bazenu, zein?

Ni baserri batean banengo, eta atarian zuhaitz bat landatu beharko banu, saiaturiko nintzateke Gernikako arbolaren kimu bat landatzen. Zuhaitz bakar bat aukeratzekotan, zerbait esaten didana izatea nahiko nuke, eta Gernikako arbolak badu esanahia gure kulturen eta gure sentimenduetan. ■■■

Jardin bat zuretzat



OIER ETXEBERRIA

Kostaldetik urrunekoak garenoi, eta gainera igerian abilezia gutxikoak, ulertezina egiten zaigu jendea Lapurdiko itsasertzera belharretara joatea. Ikasleak kurtso amaierako bidaiari doazenean, berriz, beti hartzen dute tarte Amsterdameko *Coffe Shop*etan botanikako praktikak egiteko.

Gaske askok lurrarekin duten harremanik zuzenena futbol zelaietakoak izango da. Antzina hareazkoak ezagutu genituen arren, orain bi motatakoak izaten dira: artifizialak eta natural deitzen zaien artifizialak. Geu ere umetan ganaduaren belar jatekoak egin eta gero, zelai ebaki berrian porteriak inprobisatu eta futboleko saiatu izan ginen. Gustura ikusiko nituzke Lehen Mailako jokalariai haien moduko soropil pendizetan.

Behin hormigoi gainean, argirik sartzen ez den eraikinen barrualdeak plastikozko lorez apaintzen ditugu, eta negutegiak nitrogenoz ongarritu, Gabonetan ere tomateak jan ahal izateko. Liburugintzan jardunagatik ere, ukalezina da azken belaunaldi aldaketetako transmisio galera. Tartean, sendabelarrek dakitena, eta guk ez dakiguna. Artajorran dabilzanak ez dakit konforme egongo diren, baina adituen esanetan, barrabasak barrabas, belar txarrik ez omen da.

Ziklikoa den hirigintzaren aldi honetan, berdeguneak

eraikitze joera dago. Obra zibiletako zubiak eta tunelak belar haziz estaltzen dira, eta biribilguneen oligopolioa eskulturek eta hortentsiek borrokatzen dute. Denok erein genuen eskolan hazi bana, algodoi bustia jogurt potean sartuta. Apika horregatik ugaritu dira *cherry* tomateak lorontzietan eta bugainbileak balkoietan. Preso dauden landareak, preso dagoen jendearentzat.

Ezbairik gabe roboten garaian gaude. Zeinen ongi bizi diren erakusten duten txalet atarietan roombak dabilta belazeak golfetan jokatzeko moduan uzteko, eta Gazumeko otadian eskokatzeko makina telegidatuak. Jaten duguna baldin bagara eta landareak simaurretako nutrienteetatik elikatzen badira, Guggenheim bezala daude Loiolan ere lorezko txakurrak, eta txakurrezko loreak.

Gure aitonari lirioen usaina gustatzen zitzaion.

Ni, berriz, usaimen memoriak mandioko atera naramate, uda gau batez belar ondua ganbarako tranpaldora jaso eta gero. *Kutxidazu bidea*

**ARGIRIK SARTZEN EZ
DEN ERAIKINEN
BARRUALDEAK
PLASTIKOZKO LOREZ
APAINZEN DITUGU**

Ixabel pelikula erakutsi zigun, ezin dela zuhatzik egin gramineoei alergia izanez gero. 80ko hamarkadan, siloen eraikuntzak iraultza ekarri zuen belar hezea negurako gordetzeko sistema baitzen. Laster, ordea, plastikoz estalitako bolak agertu eta siloak oilategi bihurtzera kondenatu zituzten.

Kolore biziak ospakizunen apaingarri zaizkigu; Gabonetan gorosti pinportadunak, Sant Jordi eguneko arrosa gorriak edo eztei zeremonietako gardeniak. Santu Guztien egunetan hilerriak atontzen ditugu, betiereko tristurari edertasun iragankor batekin kontra egiteko. Chavelaren arabera, ordea, negarrez ari direla dirudi, haizeak mugitzen dituen.

Nigatik balitz, libre lirateke hostoz hosto erantzitako pitxi loreak, edo lau orriko hirustak. Akaso, kaktusak ihartzen zaizkigunoi, ez dagokigu begoniak urez betetako pitxarretan zimeltzen ikustea.

Irudipena dut, beraz, igogailuko ispiluan ateratako argazkiak, indibidualismoa eta Instagrameko onarpen sozialaren beharra ez direla horren arazo modernoak. Lilipak bezain aspaldikoa baita Nartziso iturriko bere islatan ito zeneko hura. Lore bakoitza zauri bat bada, jardina bat zuretzat baino kasik baratze bat hobe. ■

Garaian garaikoa



MAITANE ELDUAIEN (GUKA ESTRATEGIAREN KOORDINATZAILEA)



Topiko bat hemen: garaiak aldatu egiten dira. Komunikazio arloan ere ezin esan dezakegu zaharrak berri direnik. Garai bakoitzak bere izaera du, eta proiektu bakoitzak bere aldia. Teknologia berriek eta Internetek urte gutxiren bueltan hankaz gora jarri dute komunikazio prozesuen paradigma. Komunikatzeko molde berriak sortu dira, eta komunikabideei molde horietara egokitu besterik ez zaie geratzen.

Erronka berriei aurre egiteko xedearekin, Urolako Komunikazio Taldea (UKT) sortu genuen, 2019an. Azkoitiko Maxixatzen, Azpeitiko Uztarria, Zumaiako Baleike, Orio-Aiako Karkara, Zarauzko Hitza, Urola Kostako Hitza eta Erlo telebista batu ginen UKTra. Irabazi asmorik gabeko kooperatiba da gurea, komunikazio proiektu bat, tokikotasunari erantzungo dion egitura bat, lantalde bakarrean bilduta, aurrekontu bakarrarekin eta xede berberarekin: euskarazko tokiko hedabide onenak eskaintzea herritarrei.

Bost urteren ondoren, urte berriarekin batera, jauzi garrantzitsua emango dugu: GUKA markaren azpian bilduko gara kooperatibako hedabide guztiak. GUKA azken hiru urteetan egindako hausnarketa prozesuaren emaitza da. GUKA estrategia marraztu dugu, kalitatezko edukiak ipar direla.

Tokikotasunari erantzun nahi dion marka komun bat da GUKA, produktu zehatz bati baino,

proiektuari berari indarra eman nahi diona. Orain artean bezalaxe, hedabideak tokikoa izaten jarraituko du, aldizkaria eta .eus webgunea ez dira desagertuko. Beroketa lanak hasi ditugu, eta horregatik ikusten hasita zaudete GUKA izena gure euskarrietan. Baina jauzia marka kontua baino haratago doa: eskaintza bera berritzera goaz, bazkideei ahalik eta zerbitzu onena emateko asmoz.

Bazkideak eta zerbitzua. Horretan nahi dugu pausatu, arnasa hartu eta sakondu, komunitatea baita honi guztiari zentzua ematen diona, gure sorreraren eta izatearen muinetako bat. Komunikabideek daukaten desafio handienetako baten aurrean gaude, orde. Gure irakurleak gero eta digitalagoak dira; urtetik urtera, handitzen doa gure atari digitalak bisitatzen dituzten irakurleen kopurua. Horri erantzuteko, 30 langiletik gorako lantaldea daukagu, egunero, gurean ahalik eta informazio eguneratuen emateko, euskaraz. Komunitatea indartzearekin batera, bazkideetza digitalari ere heldu beharrean gaude, gure atariak doan direlako, baina ez debalde.

Zero kilometroko komunikabideak dira UKT osatzen dutenak, tokikoak, gertutik eta bertatik kontatzen ditugu herriko gertakariak, eta, nekazarien moduan, garaian garaiko produktuak erein behar direla uste dugu, kalitatezkoak, uztak onak izan daitezzen. Horretara dator, hain zuzen ere, GUKA estrategia. ■

"Ikasketa baten emaitza da gaur egun egiten dudana musika"

MANOLO AIZBITARTE 'MAOLO' MUSIKARIA

Jotakie, Fundiziyue edota M musika taldeetako kidea izandakoa da Manolo Aizbitarte. Musika ibilbide oparoa du, baina azken urteetan ezin izan dio musikari nahi beste denbora eskaini. Hala ere, sortzen jarraitu du. Orain, bakarkako lehen proiektua kaleratu du, etxean ekoiztutakoa eta mezuz jantzitakoa: *Komantxe*. Testua eta argazkiak: **Maialen Etxaniz**.

Jotakie musika talde entzutetsuko kide izateagatik ezagutuko dute askok Manolo Aizbitarte *Maolo* (Azpeitia, 1963). Talde hura "eskola" izan zen azpeitiarrarentzat, baina haren musika ibilbidea ez zen horretara mugatu. 14 urte zituela hasi zen gitarra jotzen, eta hurrengo urteetan, gitarra elektrikoa probatu zuen. Hura izan zen musikaren mundura atea ireki ziona. 1981tik 1990era arte Jotakie taldean aritu zen Maolo; lau disko eta dozenaka zuzeneko utzi zituen musika taldeak. Hurrengo urteetan hainbat proiektutan parte hartu zuen, besteak beste, Fundiziyue, Mesias Berriak eta M taldeekin. 2016tik aurrera, Jotakie taldearekin zuzeneko emanaldi batzuk eskaini zituen inguruko herrietan. Azpeitiarraren musika ibilbidea oparoa izan da, eta bide horretan beste urrats bat egin du aurtengo. Bakarkako aurreneko lana plazaratu du Aizbitartek, etxean mimos sortutako diskoa: *Komantxe*. Ez du ale fisikorik atera, baina abestiak entzungai eta eskuragarri jarri ditu hainbat plataformatan.

Zure bakarkako aurreneko lana atera duzu labetik. *Komantxe*. Zer da *Komantxe*?

Abesti bat da, baina baita sortu berri dudana diskoaren izena ere. Proiektuari izen sinplea jarri nahi nion, aurkitu nahi zuenak erraz aurki zezan. Izenaren zergatia, aldiz, gaztetan ikusten nituen indioen eta bakeroen filmetan dago; beti egon naiz indioen alde. Amerikarrak –bakeroak– indioen lurrak hartzen joaten zirela ikusten nuen, eta istorio haiek bazuten antzekotasuna hemengo [Euskal Herriko] egoerarekin. Garai hartan, ni gaztea nintzela, ikusten zen norbait ari zela gure kultura kaltetu nahian. *Komantxe*arekin saiatu naiz erakusten, zapalkuntzak zapalkuntza, indioek beti izango dutela beren nortasuna.

Beti aritu izan zara musika taldeetan. Nolatan hasi zinen bakarkako proiektua gorpuzten?

Pandemia garaitik dator dena. Garai hartan elkartzeko zailtasunak genituen, eta orduan hasi nintzen ideiak garatzen eta hausnartzen. Gainera, 60 urte betetzear nengoen, eta erronka bat jarri nion neure buruari: 60 urte betetzerako lan bat amaitzea. Aurtengo amaitu dut, maiatzaren 7an, 60 urte betetzear nintzela. Beti izan naiz gauza berriak sortzeko zalea, baina beti elkarbanatu ditut ideiak beste musikariekin. Ideiak partekatu edo nonbaiten adierazten ez baditut larritu eta



estutu egiten naiz. Denboraz gaizki nabil, eta ezin dut konpromisorik hartu beste musikari batzuekin lan egiteko, ezin baitut bermatu entseguetara joango naizenik edo jarraikotasuna izango dudarik. Beraz, kale egitea baino nahiago izan dut nire kabuz sortzen jarraitzea. Banituen ideia batzuk, eta hainbat instrumenturekin nire kabuz abestiak grabatzea erabaki nuen. Ideia pila nituen, horiei gorputza eman nien, eta behin horiek guztiak bukatuta ditudala, ezagutaraztea pentsatu dut, jendeak entzun ditzan.

Zein dira diskoaren bereizgarriak?

Sei abestik osatzen dute diskoa. Bereizgarria da hainbeste urtetan jasotako esperientzia nabarmentzen dela egindako lanean. Hau da, diskoa ez da estilo zehatz batekoa, pixka bat denetik egin dut. Lehen ez bezala, orain nahi

dudana probatzera animatzen naiz, eta gustatzen zaizkidan gauzak egiten ditut; lehen egiten ez nituen gauzak egiten ditut orain. Era berean, diskoko abestiek soinu propioa dutela esango nuke. Horren inguruan badut hausnarketa bat; izan ere, iruditzen zait gaur egungo musika produkzioak borobilak direla. Hau da, soinua garbi-garbia izaten da eta dena bikain egoten da. Rock mundutik gatozen musikariontzat gaur egungo tresnek ahalbidetzen duten soinua arraroa da; musikak soinu propioa behar du. Hori dela eta, sortu dudana musikak maketa baten soinuaren tankera du; soinu garratza izatea nahi nuen. Zati batzuetan horrela da, eta besteetan ez. Musika aldetik, abestiek gorabehera asko dituzte: amorrua, tristura, lasaitasuna... dena lotzen da diskoan. Sentimenduak transmititzen saiatu naiz.



Komantxe diskoaren azala. UTZITAKOA

Kantu guztiek dituzte hitzak. Zer adierazi nahi izan duzu abestietan?

Abesti guztietako hitzak ez dira nik idatzitakoak. Hiru nireak dira, bat emaztearena, bestea Aitor Bereziartuarena eta bestea Iñigo Zubeldiarena. Gustatzen zait hitzek zeresana eta zentzua izatea. Denetarik kontatzen dute abestiek. Lantzen diren gaien artean daude, esaterako, bizitzak sortzen duen nahigabea eta bizitzeko behar dugun esperantza, aurrera egitearen ezinbestekotasuna, informazioa jasotzeko eta dena sinisteko dugun joera, maitasunaren ertzak, herri baten nortasuna eta zapalkuntza...

Hausnarketarako abestiak dira gehienak. Jendea hausnarketara bideratu nahi duzu zure musikarekin edo nahiago duzu zerbait horiei sentiaraztea?

Biak, ezbairik gabe. Musikak emozioak sortzea ezinbestekoa da. Gainera, konturatu naiz dagoeneko ez dudala edozer esan nahi abestietan, ez dudala mezu antzurik eman nahi. Lotsarik gabe idatzi eta abestu ditut abestiak, eta mezuak jendearengana iristea nahi dut. Hori lortzen badut, pozik geldituko naiz.

Etxean, musika estudio batetik kanpo, grabatu duzu diskoa. Nolakoa izan da sormen prozesua?

Musika egitea gustatzen zait, eta gailu berriak nola erabili ikastea denbora galtzea bezalakoa da niretzat. Gero eta gailu gehiago daude, eta askotarikoak. Hala ere, egin nahi nuena egiteko

gailu horietako zenbait erabiltzen ikasi behar izan dut. Denbora gehien erritmo kutxarekin patroiak diseinatzen eman nuen, hori izan zen gehien kostatu zitzaidana. Grabaketa egiteak izan ditu bere konplexutasunak, batez ere zaratagatik. Patroiak grabatzea ez zen konplexua izan, kaskoekin grabatzeko aukera baitago. Baxua ere diskrezioz graba daiteke, nahiko leun grabatzen baita. Ahotsak eta gitarra grabatzea izan da zailena, zarata handia sortzen baita, eta ezin da edozein ordutan egin.

Nola aldatu da Maoloren musika urte hauetan guztietan zehar, baldin eta aldatu bada...

Bai, noski, aldatu da. Entzuten den musikak badu eragina sortzerakoan. Garai batean, Pink Floyd eta halako taldeak entzuten nituen, Police entzutera igaro nintzen gero, eta ondoren, gauza desberdinak probatu nahi nituen garaia ireki zen; oso garai esperimentalak, nolabait. Orain berriro klasikora itzultzen ari naizela esango nuke. Hala ere, urteetan zehar ikasitakoa uztartzen du nire musikak. Ikasketa baten emaitza da gaur egun sortzen dudana musika. Batzuetan eman dezake bluesa dela, beste batzuetan undergrounda...

Zure musika ibilbidea taldeei lotutakoa izan da gehienbat. Orain, bakarkako lanean murgildu zara. Zertan desberdintzen dira bakarkako sormena eta taldekakoa?

Oso besberdinak dira. Gauza denak bezala, alde onak eta txarrak ditu bakarkako sormenak. Nik nahiago dut taldean eta taldekideekin sortzea, baina gaur egungo baldintzak tarteko, bakarka ari naiz lanean, eta horrekin disfrutatu nahi dut orain. Talde batekin musika sortzen duzunean, beti dago zure ideiak eta proposamenak entzungo dituen pertsonaren bat. Taldekide guztiek egiten dituzte ekarpenak, eta askoz ere aberasgarriagoa da hori. Giro aldetik ere alde handia dago. Taldean aritzean entseguetan sortzen den giroa ederra izaten da. Hala ere, musika bakarka egitea errazten duten eta lehen ez zeuden baliabideak daude gaur egun.

Landu berria kaleratu aurretik, eskatu al diezu iritzirik ingurukoei?

Ez. Egia esan, inork ez daki proiektuaren berri, etxeok bakarrik. Sorpresa eman nahi nuen, eta egia esan, jendeak ez du esperoko. Ziur nago hainbat izango direla azalpenak eskatzera etorriko direnak, zergatik ez dudana laguntzerik nahi izan-edo galdetzerako etorriko zaizkidanak... Baina gaur egun laneko kontuak tarteko, ezin dut



Maolo Aizbitarte, Dinamo sormen gunean. MAIALEN ETXANIZ

**"BURUAN DITUDAN IDEIAK
PARTEKATZEN EDO ADIERAZTEN EZ
BADITUT ESTUTU EGITEN NAIZ**

**"EDERRA IRUDITZEN ZAIT GAUR
EGUN MUSIKA MOTA DESBERDINAK
SORTZEKO DAGOEN GAITASUNA**

**"JOTAKIE IZAN DA ESKOLARIK
HANDIENA; MUSIKAZ GOZATZEAREN
GARRANTZIA ERAKUTSI DIT**

taldean sortu, ez daukat behar beste denborarik. Beraz, penaz bada ere, horrela egitea erabaki dut.

Non entzun daiteke *Komantxe*?

Abestien masterizazioa Ultramarinosen egin dut. Etxean grabatutakoari beste gorputz bat ematen diote haiek, eta abestiak plataforma digitaletara igotzeko moduan prestatzen dituzte. Kantuak entzungai daude, besteak beste, Youtuben, Band Campen, Sound Clouden eta Spotifyn. Daukadan helburua da nire musika atsegin duen edonork eskuragarri izatea eta nahieran erabiltzea.

Nola ikusten dituzu gaur egungo euskal musika eta eszena?

Mundial. Uste dut oso aberasgarria dela. Harrigarria eta ederra iruditzen zait musika mota desberdinak sortzeko dagoen erraztasuna eta gaitasuna; begiak ireki direla uste dut. Guk pasatu genuena pasatuta, gauzak asko aldatu dira. Kontzertuetara joan eta tentsioan egoten ginen sarritan, batzuetan beldurrez, jendearen erreakzioa nolakoa izango ote zen, botilakadak jasoko ote genituen. Izan ere, zenbaitek begi txarrez begiratzen zuen garai hartan. Orain, askoz ere gehiago errespetatzen da musika mota desberdinak sortzea. Teknologian ikaragarri aurreratu da, eta horrek ere errazago egin du talde berriak sortzea. Hori bai, estilo desberdinetako talde ugari daude, eta ez naiz iristen guztiak entzutera.

Zer musika entzuten duzu etxean?

Bertako musika entzutea atsegin dut. Azpeitiko taldeak entzuten ditut aurrena, Euskal Herrikoak gero, baita Espainiakoak eta ingelesak ere. Bertako taldeak entzutea atsegin dut, gaur egun herrian zer egiten den ezagutzeko, eta maila oso oneko taldeak daudela esango nuke.

Atzera begira jarrita, zer nabarmenduko zenuke zure musikari ibilbidetik?

Esperientziarik onenak eta txarrenak Jotakie taldearekin bizi izan nituen, zalantzarik gabe. Musika talde profesionala izatea nahi genuen, eta horrek bere alde onak eta txarrak zituen; izan ere, Jotakiek erakutsi zidan zer den musikaren arloan profesionalizatzea: musika lan bihurtzen da, eta kasu horretan, ez da musikaz modu berean disfrutatzen. Eskolarik handiena izan da Jotakie, eta momentu onenak ere talde horrek utzi dizkit, baina batez ere, erakutsi dit zeinen garrantzitsua den musikaz gozatzea. Gaur egun, musikaz gozatzen ari baldin banaiz, ez zait axola zenbat entzule ditudan aurrean. Musika egitea bezain garrantzitsua da musika egiten gozatzea. ■■■



Testua: Aiora Larrañaga Solaberrieta.
Argazkiak: Arnaitz Rubio Aprea.



A woman with dark skin, wearing glasses, a white t-shirt with 'PARIS' and 'DE L'ÉLYS' text, and a blue denim jacket, is walking outdoors. She is smiling and looking towards the camera. The background is a blurred outdoor setting with a building and some greenery.

NORBERAREN GORPUTZAZ HARRO LODIFOBIA JOMUGAN

Uda garaia iritsi da. Gizarteak ezartzen duen edertasun ereduak indarra hartzen du urte sasoi horretan, egiturazkoa den lodifobiaren eragina inoiz baino agerikoago bihurtuz. Lodifobiak nola eragiten duen ezagutzeko, eskualdeko hainbat herritarren testigantzak bildu ditu GUKAk. Horiek argi dute: "Ez dira kasu isolatuak, jende askok bizi ditu halakoak".

Martxoaren 4a Lodifobiaren Aurkako Eguna izendatu zuten osasungintzako hainbat profesionalak eta lodifobiaren aurkako aktibistek. Berez, Obesitatearen Aurkako Eguna bada ere, manifestuarekin salatu zuten edertasun ereduak eta horiek lortzeko dietaren kulturak gizartean "kaltea" eragiten dutela, eta gorputz masaren indizearen aitxakian, gorputz ereduak "patologizatu" egiten dela. Izan ere, adierazle horrek pertsonaren garaiera eta pisua hartzen ditu kontutan, hezur eta gihar masa aintzat hartu gabe: 19 eta 25 arteko Gorputz Masaren Indizea (GMI) dutenek izango lukete pisu egokia; 25-29,9 artekoek gehiegizko pisua; eta 30etik gorakoek obesitatea. Horra hor gorputz normala edo lodia izatearen arteko muga. Eustatek gaiak argitaratutako azken datuen arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan herritarren %12,5k du obesitatea eta %33,5k gehiegizko pisua; beraz, herritarren %46 bere pisutik gora legoke. Horren aurrean, lodifobiaren aurkako aktibistek osasuna zenbaki hutsetatik haratago doala aldarrikatzen dute.

Mugimendu feminista aspaldi hasi zen lodifobiak gizartean, eta bereziki emakumeengan, zuen eragina aztertzen, eta gaiak duen garrantzia azpimarratu du Miriam Garcia Etxeberria Orioko Pertzetik elkarte feministako kide eta Emakumeen Etxeko arduradunak. "Pertsonak lodiak izateagatik jasotzen duten bazterkeria eta gorrotoa da definizioz lodifobia, baina askoz haratago doala esango nuke. Zapalkuntza sistema bat da, kanon estetiko oso markatu batetik ateratzen den edonoren aurka egiten duena. Argal egotea osasunarekin lotzen da; kontrakoa, berriz, gaixo egotearekin. Pertsona lodia bazara, izaera alferrarekin eta utziarekin lotuko zaituzte, kontrolik ez duen pertsona batekin".

Hasiera batean pentsa daiteke lodifobiak pertsona lodiari "iseka egitea" duela oinarrian, baina hori baino askoz "sakonagoa" dela argi du Garciak: "Eraso zuzenez gain, beste modu askotara bizi dezake lodifobia pertsona batek. Osasungintzan, esaterako, edozein arazoren aurrean, oso ohikoa da medikuek jatorria loditasunean bilatzea, benetako arazoan sakondu gabe. Horrez gain, autozaintza agindua ez betetzeagatik epai moralak jasotzen dituzte, baina kirola eginez gero ere, begiradak, txutxu-mutxuak eta isekak agertzen dira. Bizitzako arlo guztietan dago lodifobia: lan eremuan, harreman sexual nahiz afektiboetan, kulturen... Lodia bazara, bereizkeriaz tratatuko zaituzte lan esparruetan, eta zer esanik ez ligatzeko orduan; pertsona lodiak merkatutik kanpo daude".

Gorputz eredu normatiboa izatearen presioa era batera edo bestera gizarte osoak jasaten duela azaldu du Emakumeen Etxeko arduradunak. "XXI. mendea irudiaren, mugikorraren, sare sozialen eta *selfi*aren garaia da, eta, testuinguru horretan, gorputz lodia gorputz okerra da. Baina pertsona argal batek ere sufrituko du, presio handia izango baitu argal jarraitzeko, gorputza mantentzeko, kirola egiteko. Beldur ikaragarria diogu pisua hartzeari, horrek argaltasun proiektuan porrot egin dugula esan nahi duelako. Dietaren kulturen bizi gara, eta horrek eragin ditzaizke elikadura nahasmenduak". Presio estetiko horrek emakumeei bereiziki eragiten diela uste du, horiek beren bizitzak itxuraren inguruan eraikitze sozialetan izan direlako. "Itxurak erabakiko du gure estatus soziala, eta horrek gure egunerokoan eragin egingo digu. Adibidez, kanpoko begien arabera itxura zaintzen ez duen emakume batek egoera berean dagoen gizon batek baino zailtasun handiagoak izango ditu lan munduan". Garciaren arabera, argaltasunak "zoriontasuna" dakarrela ere saldu du sistemak. "Perfekzio hori, noski, ez da eskuragarria, baina bizi osoa pasatuko dugu hori eskuratu nahian. Azken finean, sistema patriarkalak argaltasuna bezalako promesa jasanezinak garatu ditu gure gorputzak kontrolatzeko".

Egoeraren aurrean, Garciak dio "oso beharrezkoa" dela lodifobiaz hitz egitea, baita aktibismoa ere. "Pertsona lodien aurkako diskriminazioa dagoela salatu egin behar da, eta gure errealitatearen analisi kritiko bat egin". Horrez gain, "diskurtso teorikoetatik irten eta gorputzera etortzea" ere oso beharrezkoa dela deritzo. "Bizitako lodifobiaz hitz egin behar dugu, osatzeko eta elkar babesteko. Askotan, oso bakarrik sentitzen gara gai horren inguruan, inguruan ditugun lagunek ere esperientzia oso antzekoak bizi izan dituztela konturatzen garen arte. Esperientzia horiek elkarbanatzea oso sendagarria izan daiteke".

Eskatu gabeko aholkuak

Jon Alkain (Orio, 1998) eta Andoni Uranga (Orio, 1998) oriotarrak oso kontziente dira inguruan bizi duten lodifobiaz. Bi gazteek umorea erabiliz eman dituzte azalpenak, baina gaiak asko hausnartutakoak direla nabari da segituan. "Nik txikitatik izan dut handia nintzelako desberdina izatearen sentipena. Zenbat aldiz esan ote zieten medikuek gurasoei: 'Handiegia dator' ". Lodia izatearen estigma horrek haurtzaroan eta nerabezaroan "markatu" egin zuen Alkain eta, azkenean, 17 urterekin, elikadura portaeraren nahasmendua izan zuen: sei hilabetetan 40 kilo



Jon Alkain eta Andoni Uranga. ARNAITZ RUBIO APREA

galdu zituen. "Hezurretan nengoen: 1,76 metro neurtzen nuen eta 64 kilo pisatu. Ikaragarria da, jendeak oso guapo eta eder nengoela esaten baitzidan, nahiz eta ondo ez egon". Horregatik, Alkainek argi du: "Gizarte honek onartzen zaitu itxura jakin bat baldin baduzu, baina edertasun eredu horretatik ateratzen baldin bazara, zaintzeko eta kirola egiteko esaten dizu etengabe, orain arte zaindu izan ez bazina bezala".

Gizarteko lelo horiek etengabe errepikatzen direla uste du Urangak ere, gizona izateari konnotazio edo esanahi "negatiboa" emanez. "Jendeak ohitura handia du lodi daudenei aholkuak emateko, bere osasunaren 'hobe beharrez' ari direla esanez, noski: 'on egingo dizu mendira ibiltzera joateak', 'jan itzazu karbohidrato gutxiago', 'fruta eta barazki gehiago izan behar ditu zure elikadurak', eta nola ez, 'kafearekin azukre beltza edo sakarina?'... Osasun fisikoa jartzen da aitzakia gisa, baina zer gertatzen da buruko osasunarekin?", galdetu du Urangak. "Akaso erretzen duenari etengabe esaten al zaio mendira joateko aire garbia arnastera, edo alkohola egunero edaten duenari errepikatzen al zaio ura edateko, alkohola gibelarentzat kaltegarria delako?".

Hala, bi gazteek uste dute presio sozial horrek "autoestimu arazoak eta norberaren auto pertzepzio zeharo okerra" dakartzala: "Jasaten duzun presioari aurre egiteko, desio duzun bezala argaltzen zarenean ere ez zara ondo ikusten, sekula ez da nahikoa, barru-barruan geratzen zaizulako urteetan errepikatu dizuten leloa". Hain zuzen ere, gizartearengandik jasaten den presioaz "oso gutxi hitz egiten" dela deritzo Urangak. "Norberak darama zama, inorekin partekatu gabe. Norbere gorputzaz lotsatuta bizi da jende asko; uste baino ohikoagoa da, gai-

"Pertsona lodien aurkako diskriminazioa dagoela salatu egin behar da"

"Garen bezala izatearen erruduntasun sentimenduak gizarteak sortu digu"

nera". Pasarte bat kontatu du anekdota gisa: "Kuadrillan inauteritako mozorroa erostera joan eta aukeraketa egitean, neurri estandarraren barruan dauden horiek normalean ez dute pentsatu ere egiten beraiei primeran geratzen zaien neurri hori lodiei ez zaiela kabituko. Mozorroa aukeratzen duten bitartean gizena atzean dago dardarka, sartuko al zaion pentsatzen". Konfiantzazko inguru batean, lagun artean egon arren, "lotsagatik" gertatzen zaiena oso gutxi azaleratzen dutela uste du oriotarrak: "Zaila da araututakotik kanpo zaudela aitortzea, sistema argalen neurrira egina baitago".

Zentzu horretan, Alkainen eta Urangaren ustez, lodifobia lantzeko lantegiak "oso baliagarriak" dira horrelako bizipenak edo antzekoak jende askok izan dituela jabetzeko; izan ere, haiek diotenez, ez dira kasu "islatuak", eta horiei kolektibo gisa egin behar zaie aurre. "Garen bezalakoa izateagatik ditugun errudun sentimenduak gizarteak sortu dizkigu, sistemak ezartzen dituen arauen eta ereduaren bidez. Gaiaz jendearekin hitz egitean, askok garrantzia kentzen diote, eta, beste batzuek, berriz, gizarteari kasurik ez egiteko esaten dizute, baina era berean, konturatu gabe, beraiek ere erreproduzitu egiten dituzte jarrera lodifobikoak".

Bi gazteek sentitu dute lodi izate hutsak batzuei "molestatu" egiten diela ere. "Pertsona lodi bat pasatzen denean, jendeak uste du hari buruzko iritzia emateko eskubidea duela, berriz ere loditasun hori osasunarentzat kaltegarria dela aitzakia hartuta, noski. Askotan gertatzen da parrandara atera eta kuadrillaren baten aurretik pasatzean 'gordo', 'potolo' edo horrelakoren bat deitzea ere". Argi dute ezagurri fisiko hori irain moduan erabiltzeak "pertsona lodiak estigmatizatu" egiten dituela. "Horrek eragin zuzena du pertsona horiek ezezagunaren aurrean hartzen duten jarreraren, diren bezalakoa izateagatik baztertuak edo irainduak izateko beldurra sortzen dielako. Eta, berriro diogu: ez dira kasu islatuak, jende askok bizi ditu halakoak".

Aniztasunari balioa

Fama Thiam (Dakar, 1984) senegaldarra da, eta 12 urte zituenean utzi zuen jaioterria, Almerian (Espainia) bizi ziren gurasoekin elkartzeko. Europara iritsi zenean harridura eragin zion faktoreetako bat izan zen gizarteak pertsona lodiekiko zuen jarrera "ezkorra". Hala azaldu du: "Lodifobia arrazakeria bezala da. Zenbaitek esan dezakete gizartea ez dela arrazista, baina beltza denak etengabe sufritzen du. Gauza bera gertatzen da lodifobiarekin ere. Batzuei irudituko zaie lodia izateagatik ez dela inor baztertzen, baina gizena dagoenak badaki zer-nolako begiradak, komentarioak, jarrerak, bazterketak eta irainak pairatzen dituen". Hain zuzen ere, Thiamek uste du lodifobiarik ez dagoen herrialde batetik iritsita, "are nabarmenagoa" dela bazterketa. "Senegalen pertsona handiak ederrak direla sinesten du gizarteak, eta oso eroso sentitzen dira beren gorpuzkerarekin. Eredu publikoan, hainbat arlotan ikus daitezke emakume eta gizon handiak erreferente gisa: komunikabideetan, musikan, politikagintzan, enpresa munduan... Gorpuzkerak ez du baldintzatzen pertsona horrek lor dezakeen arrakasta, ez dagoelako horren gaineko aurreiritzirik, ezta gorputzaren



Fama Thiam. ARNAITZ RUBIO APREA

arabera eraikitako hierarkiarik ere". European, aldiz, pertsona lodiak "seinalatuta eta epaituta sentitzea" ohiko dela deritzo. "Has gaitezen kontatzen zenbat emakume edo gizon lodi dauden esena publikoan: oso gutxi. Kasualitatea al da? Ez". Thiamek uste du eremu publikoan "oso argi" ikusten dela pertsona lodien bazterketa. "Hemen loditasuna utzikeriarekin lotzen da, eta horregatik ez da eredu gisa aurkezten".

Pertsona lodiei egiten zaien presioari aurre egiteko, Thiamentzat garrantzitsua izan da bere jaioterriko errealitatea ezagutzea. "Ez dut gezurrik esango; gaztea nintzenean, institutuan sufritu nuen bazterketa beltza eta gizena izateagatik, eta nire seme-alabek ere bizi izan dituzte antzeko egoerak. Hala ere, beste erreferente batzuk izateak asko lagundu izan dit neure buruarengan sinesten, argi nuelako zer-nolako emakumea izan nahi nuen".

Aian bizi den senegaldarrak askotan "penaz" bizi ditu Euskal Herriko pertsona lodi askok txiki-txikitatik dituzten konplexuak. "Haurrei txikitatik errepikatzen zaie lodiak daudela, eta errepikatuz eta errepikatuz, kalte handia sortzen die autoestimuan, zerbait oker egin dutela pentsatzen baitute. Pertsona horiek markatuta bizi dira heldutzen direnean ere. Horregatik, benetako gizarte inklusiboa nahi baldin badugu, oso garrantzitsua da lodifobiaz jabetzea eta horri aurre egitea". Prozesu horretan, lodiak dauden pertsonak "diren bezalakoak izateagatik harro" sentitzea ezinbestekoa dela uste du Thiamek. "Gainontzekoek baztertu ez gaitzaten, geure buruari balioa eman behar diogu, gizarteak ezarri nahi dizkigun konplexu guztiak alde batera utziz". Berak, esaterako, ozen aldarrikatzen du ez dela ezkutatzen. "Ez ditut arropa zabalak janzten arretarik ez emateko. Arropa estuak janzten ditut, nire



Ana Bringas.

ARNAITZ RUBIO APREA

gorputzaz harro nagoelako eta ez dudala ezkutatu beharrik uste dudalako". Izan ere, Thiamen iritiz, pertsona guztiak molde berekoak balira, "oso aspergarria" izango litzateke gizartea. "Aniztasunari zentzu guztietan eman behar diogu balioa".

Gorputzarekin adiskidetzeari helburu

Antzekoa da Ana Bringas (Zumaia, 1984) zumaia-rraren testigantza ere. "Handia" izateagatik begirada askoren jomuga izan dela sentitu izan du beti. "Ez naiz sekula estandarretan sartu eta zenbait unetan horregatik baztertua izan naizela uste dut, baina nire izateko moduarekin horri aurre egiten saiatu naiz beti. Neure buruarekiko izan dudana hautematean ere kalte egin didate jendearen iritziek, komentarioek edo begiradek", aitortu du. Bringasi irudiaren eta modaren mundua gustatu izan zaio betidanik, baina badaki arlo horretan ez duela lan gehiago egin bere gorpuzkeragatik. "Saiatu banaiz ere, arropa kate handiek sekula ez naute kontratatu beren dendetan saltzaile lanetan aritzeko, nahiz eta langile bila ibili eta nik lan hori betetzeko eskatzen zituzten baldintza guztiak bete".

Eredu horri aurre egin nahian, Bringasek arropa denda bat zabaldu zuen Zumaian. "Emakume askori ez zaie arropa erostera joatea gustatzen ohiko dendetan beren neurriko arropa ez dutelako aurkitzen, eta hori oso frustragarria da". Modaren industriak egiten duen presio hori bere azalean bizi izan du zumaia-rrak: "Beti gustatu izan zait arroparen bidez nire nortasuna adieraztea, eta oztopo asko izan ditut horretarako, nire neurriko arroparik ez nuelako aurkitzen ohiko dendetan. Garai batean gizonezkoen prakak ere erosi behar izaten nituen. Takoidun zapatak janzten nituen, gizonezkoen prakekin".

Jakin badaki, ordea, berea ez dela kasu isolatua, neska gazte eta emakume askok sufritzen dutela horregatik. "Nire dendara etortzen zen 12-13 urteko neska bat bere amarekin. Gogoan dut lehen aldiz lotsatuta etorri zela. Amak esan zidan praka estu batzuk nahi zituela, bere lagunek moda kate handietan erosten zituztenak bezalakoak. Neska ederra zen, baina konplexu handia zuen bere gorpuzkerarekin. Oso pozik jarri zen galtza batzuk sartu zitzaizkiolako, eta amak aitortu zidan ez zuela sekula horren zoriontsu ikusi. Ordutik dendara irribarre-tsu etorri izan zen; bere buruarekiko segurtasun handiagoarekin begiratzen zituen arropak eta lasaitasunez aukeratzen zuen nahi zuena". Arazo hori bizi izan ez duenari "garrantzirik gabeko anekdota" irudituko zaiola uste duen arren, arropa erosi nahi den bakoitzean "araututakotik at sentitzea oso gogorra" dela uste du Bringasek. "Izan ere, horrek uneoro sentiarazten dizu ez zarela izan behar zenukeen bezalakoa".

Lodifobia "esan edo hitz soila baino askoz sakonagoa" dela uste du. "Haurra zarenetik pixkanaka-pixkanaka bide desberdinetatik



buruan sartzen dizkizuten ideiak dira, gizartean lodia den guztiaren aurka errotuta dauden us-teak". Bringasen iritziz, lodia izateagatik sortzen den bazterketa ez da arlo informalean bakarrik ematen, osasungintzan ere gertatzen dela de-ritzo. "Mediku bakoitzaren arabera da, baina askok edozer duzula ere, dena beti pisua-rekin erlazionatzen dute. Nik azaleko arazoak izan ditut, eta lehen aldiz artatu ninduen der-matologoak esan zidan elikadura zela nire ara-zo nagusia. Dietan hastea agindu zidan, garbi janda pasatuko zitzaidala eta. Oso oker zebilen, denbora tarte hartan okertu besterik ez baitzi-tzaidan egin arazoa. Espezialistaz aldatzeko eskatu nuen, bigarren iritzi bat izateko, eta, azkenean, jakin nuen nire azaleko arazoak ez zuela zerikusirik elikadurarekin".

Zumaiarrak aitortu du bera berez dela "handia eta zabala", baina ez dela beti egoera berean egon, "bakoitzak bizi duen une pertsonalak eragin zuzena" duelako gorputzean. "Garai batzuetan besteetan baino argalago egon naiz. Orain, adibidez, bigarren semea izan berri dut, eta pisua hartuta nago. Jakin badakit erosoago sentituko nintzatekeela taila eta erdi jaitisiko banu, baina hala eginda ere, gizartearentzat lodi egoten jarraituko nuke". Horregatik, bere buruari ez dio eskatzen gorputz eredu norma-tiboaren barruan sartzea, uste duelako "norbe-rak erabaki" behar duela nola sentitzen den gustura, "gainontzekoen iritziei jaramonik egin gabe". Bringasen iritziz, gakoa "pertsonak diren bezala onartzea" da. "Bata bestearengandik desberdinak garela naturaltasunez hartu behar dugu, denak molde desberdinekoak garelako. Ezaugarri horiek ez genituzke irain bezala era-bili behar. Harrigarria da haurrak bata besteari 'potolo', 'gordo' eta horrelakoak deitzen zeinen goiz hasten diren ikustea". Arlo horretan, au-toestimu eta autozaintza "lan handia" egin behar dela uste du, "astakeriarik ez egiteko". Zehaz-tera jo du: "Gizen egotea osasuntsua ez dela sinetsita egongo dira asko, baina argal egoteko buruko gaixotasunak izan dituztenak ere asko dira. Nire ama zenak esaten zidan gorputzari eskerrak eman behar dizkiogula, horri esker bizi garelako. Beraz, zaindu eta maite dezagun gure gorputza, eta adiskidetu gaitezen berarekin, bizitza bizitzeko da eta". ■



IBAI-BIDAIA RHIN IBAIAN

HERBEHEREAK ETA BELGIKA

Amsterdam, Dordrecht, Rotterdam, Delft, Veere, Middelburg, Brujas, Gante, Anberes, Brusela, Kinderdijk eta Schoonhoven

8 egun / 7 gau.

IRTEERAK: UZTAILAK 23 ETA 30

Dena barne. Ontzian, dena sartuta edarrietan; ura, freskagarriak, ardoa eta garagardoa mugarik gabe 12:00etatik 24:00etara. Ura kabinan eta txangoetarako.

Hirietako bisitaldi gidatuak, gaztelanaz badakien gidariarekin.

Hegaldiak, trasladoak, aseguruak eta tasak sartuta daude

1.892€

JAPONIA

TOKIO, HIROSHIMA, OSAKA, KYOTO, TAKAYAMA

15 egun/13 gau

Irteerak: irailak 10 eta 24

Gaztelanaz badakien gidaria, txangoak, JAPAN RAIL PASS

2.650€

HABANA VARADERO

3 gau Habanako TRYP HAVANA LIBRE hotelean (gosariarekin)

4 gau Varaderoako MELIA PENINSULA VARADERO hotelean (dena barne)

Tasak, trasladoak eta asistentzia-asegurua sartuta daude

1.340€



Jose Artetxe 14
943 151 912

 **EROSKI** / bidaiak

Anetatu? Egau lagar!



NON DAGO UZTARRIA?



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarrria@gmail.com helbide elektronikora uztailaren 14a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta. Ekaineko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 43. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Juan Carlos Del Pozo bazkidea izan da irabazlea.



URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Gizartea aldatzen doan eran, arkitektura ere eraldatzen ari da"

XABIER REZABAL ARKITEKTOA

Mende laurdeneko ibilbidea eginda du Rezabalek arkitekto lanbidean. Arkitekturako ikasketak bukatu orduko heldu zion ofizioari. Garaiak nola, hala ari dira aldatzen hirigintza eta eraikinak egiteko obrak. Aurrera begira, kezka bat du azpeitiarrak: esku langileak faltako direla.

Testua: **Leire Ibar**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Leire Ibar eta utzitakoak**.

Orain dela 25 urte Arkitektura ikasketak amaituta, ordutik lanbide horretan dihardu Xabier Rezabalek (Azpeitia, 1972). Txikitatik garbi izan du zer egin nahi zuen; bokaziozko lana izan da harentzat arkitektura, eta hark dio "zortea" izan duela ogibide horretan lan egiteko aukera izan duelako.

1998an ikasketen amaierako lana aurkeztearekin batera ekin zion azpeitiarrak arkitekto lanari; izan ere, lana aurkeztu zion irakasleak berarekin lanean hasteko eskatu zion. Urtebetez harekin lanean aritu ostean, estudio eta lan mota desberdinak egiteko irrika piztu zitzaion, eta Tolosako estudio batean hasi zen lanean. "Beste estudio batzuen funtzionamendua ezagutzeko eta haietako lan egiteko modua nolakoa zen jakiteko gogo sartu zitzaidan". Bien bitartean, proiektu txikiak sortzen hasi zitzaizkion Rezabali, eta orduan ekin zion bere kontura lan egiteari. "Harrezkero, eta gaur arte, ez naiz gelditu".

Gaur egun, askotariko proiektuak izaten ditu esku artean Rezabalek; etxe baten eraberritze proiektuak nahiz denda, plaza edota askotariko eraikinetarako proiektuak. Horiez gain,

hirigintzako aholkularitza lanak ere egiten ditu hainbat lekutan. Ez du bereziki gogoko proiektu mota jakin bat: "Ez dago proiektu ideal bat. Helburua egindakoarekin gustura gelditzea da, bai ni, baita bezeroa ere. Nik diseinatutako hori jendeak erabiltzen duela eta jendea gustura dagoela ikustea izaten da proiektuarekin asmatu duzun seinalerik onena. Proiektuak pentsatuta bezala funtzionatzen duela ikusten duzu halakoetan".

Sarri, nahi bezalako proiektuak gauzatzea ekonomiaren faktoreak eragozten duela azaldu du. "Ideia bat izan dezakezu, baina jarritako diru muga horretara murriztu behar izaten dugu beti. Ideala izango litzateke bateren batek zera esatea: 'Nik ez daukat diru aldetik batere arazorik, eta egin nahi duzuna'". Hala eta guztiz, hark azaldu du proiektu txikiak eta onak ere egin daitezkeela, eta unibertsitateko irakasle batek esaten ziena ekarri du gogora. "Hala esaten zuen: 'Hobe da gauza txiki bat ondo egitea, izugarrizko gauza bat gutxi gorabehera egitea baino'". Gainera, ekonomiaren egoerak berebiziko eragina du arkitekturan ere, baita krisi garaiek ere; izan ere, arkitektoak esan duenez, krisi garai horietan

Kabier





jendeak batik bat mantenuko obrak soilik egiten ditu.

Azkenengo urteetan aldaketa handiak izan dituen ogibidea da arkitektoena; izan ere, teknologia berrien sorrerak aldaketa ugari eragin dituela esan du Rezabalek. Arkitekturako lizentziatura bukatu zuenean, dena eskuz egiten zela ekarri du gogora: "Karrera amaieran hasi nintzen ordenagailua erabiltzen. Gerora egin zen Rotringak eta eskuz egindako planoak alde batera uzteko eta programa digitalak erabiltzeko jauzia". Dena den, sormen lanak hor jarraitzen duela azpimarratu du: "Sormena lehen bezain beste landu behar da orain, baina beste zenbait lan erraztu egin dira". Lan egiteko modua hainbat zentzutan "asko erraztu" dela jakinarazi du, guztia digitalki egiten baitute gaur egun, hala nola kopiak, sinadurak, oniritziak eta abar. Lana erreproduzitzeko edo sortzeko prozesua erraztu egin bada ere, teknologia eta programa digitalen bilakaerek "estresa" ere sortu diela jakinarazi du. "Guztia presaka egin beharra ekarri du digitalizazioak, dena da gaurko edota biharko". Horrez gain, hirigintzan zein eraikuntzan azken urteetan asko aldatu den beste faktoreetako bat araudiarena eta dokumentazioena dela esan du: "Araudiak asko gogortu dira, eta dokumentazio lanak ugaritu".

Jasangarritasuna eta kontserbazioa

Rezabalek azaldu duenez, gaur egun, oso garrantzitsua da proiektu bat klima aldaketaren



auziaren ikuspuntua kontuan hartuta eraikitzea. "Lehen horrenbeste garrantzi ematen ez bazitzaion ere, egungo klima aldaketarekin eta energiaren garestitzearekin, kontuan hartu beharreko kontua da eraginkortasunarena. Ezinbestekoa da eraikinak klimatikoki ere pentsatzea, hau da, ahalik eta gutxien kontsumituko duen diseinu planteamentua egitea, beti ere ahalik eta kalitate onena izateko eta mantenua murrizteko helburuekin".

Xabier Rezabal

- **Adina:** 50 urte.
- **Ikasketak:** Arkitektura.
- **Lanbidea:** Arkitektoa.
- **Arkitektoa izango ez banintz...**
diseinuarekin zerikusia daukan zerbait egingo nuke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...**
bidaiatzea eta herrialde desberdinetako kulturak ezagutzea.



Materialei dagokienez, kontsumoa neurrikoa izaten eta ahal dela murrizten saiatzen da arkitektoa, eta horri lotuta, jasangarriagoak diren materialen erabilera lehenesten dutela esan du; egurra, esaterako.

Hirigintzan, berriz, jasangarritasuna bizikletaren erabilera sustatuko duten eremuak sortuta lor daitekeela azaldu du. "Lehen, adibidez, espazioak hormigoiz betetzen ziren; orain, berriz, irizpide zein helburuak bestelakoak dira. Hirigintza gizartearekin batera doa, eta gizartea aldatzen den eran, arkitektura ere eraldatu egiten da. Gizartea garatzen doan heinean, eraikinak eta arkitektura ere aldatu egiten dira". Eraikin zaharren kontserbazioa eta hirigintzako plan berriak uztartzearen auzia eztabaidagai da egun. Posible den neurrian, aintzinako eraikinak zaharberritzen saiatzen badira ere, Rezabalen ustez, eraikinak kontserbatu egin behar dira, baina baliorik baldin badute: "Ez du zentzurik interes gehiegirik gabeko zerbait iraunarazteak. Hala ere, egungo irizpidea zaharberritzearen aldekoa da, posible den kasuetan. Badaude, ordea, ustez baliorik ez zutelakoan, balio arkitektonikoa eta historikoa kontuan izan gabe, bota diren eraikin batzuk. Adibidez, lehen baserri asko eta asko bota



egiten zituzten; egun, baina, ahal dela mantendu egiten dira egiturak berrituta". Rezabalek azaldu duenez, hilabete edota urteetako kontua izan daiteke proiektu bat diseinatzetik gauzatu arteko prozesua, "proiektuaren konplexutasunaren arabera" denbora gutxiago edo gehiago behar izaten dutelako. "Dena den, proiektu bat bukatzen ez den lan bat da; bukatzeko eperik izango ez bagenu, hobetzen segituko genuke une oro, beti izaten delako zer hobetu". Arkitektoak dioenez, baina, denbora luzekoa izan ohi da proiektu baten ideiatik hura gauzatu arteko bidea, eta prozesu horren atzean jende askoren lana dagoela gogorarazi du. Horri lotuta, gainera, badu kezka bat Rezabalek: "Gero eta esku langile gutxiago daude, hala nola iturginak, igeltseroak edota margolariak. Urte gutxi barru izugarrizko arazoa etorriko da, gremioak faltako direlako. Orain, lan horietan ari diren gehienak helduak edo erretiroa gertu dutenak dira, ez dago gazteen jarraipenik. Lan sakrifikatuak dira horiek". ■



ALTxo- rraren bila

SUDOKUA

	U		H	N
N		H		U
		Z	U	
	N		H	Z
	H			Z
Z	N		I	

Loroek hiltun fama dute, ezta? Bete itzazu hutsuneak **HILTUN** hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (H, I, Z, T, U eta N). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta arlea bakoitzeko.



Baiez Hamabi!

Horra hemen bi itsaslapur. Bata bestearen ispilu direla ematen du baina ez dira erabat berdinak. Aurkitu bien arteko aldeak. 12 dira guztira.

Bikotea

Loro hauen artean bat bi aldiz ageri da. Zein da?

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Segi hedatzen



MIREN SEGUROLA

Bi urte igaro dira Uztarriak orrialde hauetatik Azpeitiari begiratzeko eta azpeitiarrei hitz egiteko aukera eman zidanetik, eta harrezkero, bi hilean behin gustura heldu diot eskaintzari, kezkatzen nauten gaiak aletuz, eta bereziki, euskararen bilakaerak eta egoerak dituen erronkak nabarmenduz. Bi urtean ez gara askorik aldatu beharbada, eta euskarari dagokionez ere, akaso, herriak ez du aldaketa soziolinguistiko esanguratsurik izan. Eguneroko kontuetan hobera egin dugu hainbat arlotan, baina herren jarraitzen dugu beste zenbaitetan.

Oro har ikus-entzunezkoak, *streaming* plataformak eta sare sozialak gailendu zaizkigu aisialdian, eta hizkuntzari dagokionez, horrek arrakala handia sortu du kaleko arau sozialaren eta pantailetako hizkuntzaren artean. Euskaraz aritzen gara kalean, baina erdarak dira ohikoenak pantailetan. Horrek guztion hizkuntza ohituretan du eragina, baina batez ere, haurren, nerabeen eta gazteen ohituretan. Eskoletan ere sumatzen da horren eragina, eta gaiari heltzeko beharra ere sumatu du urte hauetan bidea egiten hasi diren Euskara Mahaiak eta Hezkuntza Mahaiak.

Horregatik, garrantzitsua da aisialdian euskarazko eskaintza izatea oinarri, eta ezinbestekoak dira hori lantzen eta lortzen duten egitasmoak. Adibide ezin hobea da ikasleek dituzten beharrei eta zaletasunei bide eman nahian herrian martxan jarri den Hedatze proiektua. Ikastetxeetako guraso taldeek, herriko hainbat eragilek eta Azpeitiko Udalak elkarlanean antolatu dituzte tailerrak: arkeologia, Elkarguneko denda, eskalada, sukaldaritza, lehen sorospenak, jarduera fisikoa, sormena, kirola eta abar. Guztiak ere herriko hiru ikastetxeetako gazteak elkarrekin arituz eta pantailetatik haratagoko aisialdi eredu berria sustatuz. Errefortzu zein zaletasun tailerrak dira Hedatze programan oihartzun gehien dutenak, baina horrelako ekimenen bidez euskara ere hedatzen da eta hizkuntza ohituretan ere nabarmen eragiten da. Horregatik dira ezinbestekoak horrelako egitasmoak. Herritik herritarrentzat sortutako herri proiektuak.

Orain, herritar eta kolaboratzaile berriei hitza emateko eta plaza eskaintzeko ordua heldu zaidanean, amaitu aurretik eskerrak eman nahi dizkiet ezinbestekoak diren beste batzuei ere: Uztarriari eta irakurle guztiei. Uztarriari, webgunean, sarean zein paperean herri informazioa zabaltzeko egiten duen lanagatik, eta horrek gure hizkuntza egunero biziberritzeko duen garrantziagatik. Irakurleei, Uztarria bezalako euskarazko komunikazio proiektuak laguntzen eta sustatzen jarraitzeagatik. Eskerrik asko, eta segi egunero euskara lau haizetara hedatzen! ■■■

**GARRANTZITSUA DA
AISIALDIAN
EUSKARAZKO
ESKAINZA
IZATEA OINARRI**

DOAN EZ DA DEBALDE



**ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.**

bazkide@ukt.eus o 943-81 38 41

Azpeitiko pilotaren urrezko aroak

TESTUA: NEREA URANGA

Pilotaz hitz egiterakoan, Azpeitiaren aldameneko herria, Azkoitia, ekartzen dute askok gogora. Azken urteetan, ordea, ederki landu du harrobia Ilunpe pilota elkarteak, eta balentria ederra erakusten ari dira eskuzko Gipuzkoako zein Euskal Herriko herriarteko txapelketetan. Profesionaletan hiru pilotari –Jon eta Unai Alberdi anaiak eta Julen Egiguren– ari dira jokatzeko; Ados elkartearekin ari da pilotan Oihana Orbegozo; eta beste hainbat erremontean dabilta lehian. Atzera eginda, baina, "pilota modernoaren" hastapenetan Azpeitiak eta azpeitiar pilotariek nolabaiteko zeresana izan zuten, "urrezko aroak" izan zituzten, eta hain zuzen, horixe nabarmendu du Joxe Mari Oterminek (Amezketak, Gipuzkoa, 1948).

Kazetaritza ikasi zuen amezketarrak, eta Loiolako Herri Irratian zortzi bat urtez egin zuen lan. Ondoren, Euskadi Irratia martxan jartzeko "zortea" izan zuen, eta EITBko Miramon zentroaren zuzendari eta programazio buru aritu zen. Donostiako Antiguoko pilota elkartearen ere ibili zen, baina utzita du, "osasunak hala aginduta". Historia du gustuko "gauza guztien gainetik", eta "istorio txikiak" gustatzen zaizkio. "Bada historia idazteko

modu berezi bat: Carlo Ginzburg italiarra zalea da historia txikietatik abiatu eta abanikoa zabaltzeko, eta modu hori oso aproposa iruditzen zait pilotaren mikrohistorietatik abiatu eta historia potolara edo handira jotzeko".

Hala bada, pilotaren historiako pasarte txikiak hartuta, pilota industria bihurtzen hasi zen garaitik aurrerakoa aztertu du Oterminek, eta jardun horretan aurkitu ditu azpeitiar pilotarien izenen eta izanen arrastoak. "Nire ahalegina izan da pilota jokoa nola bihurtu zen kirol ikuskizun eta negozio iturri aztertzea. Euskal Herrian herri joko asko izan da, baina benetako industria, negozioa, pilotak bakarrik egin zuen, eta mundu osora zabaldu zen: Ameriketara, Filipinetara...", azaldu du bere azterlanaren jatorria. Orduak, egunak, asteak eta urteak igaro ditu jakin-min horri arnasa eman nahian, eta XVIII. mendearen azken hiru laurdenetan Azpeitiko pilotariek zer-nolako garrantzia izan zuten "nabarmena" dela ondorioztatu du.

**"IZARRA IZAN ZEN
BAUTISTA, HARI ESKER
AZPEITIAK IZENA
HARTU ZUEN PILOTA
ZAHARREAN"**

1733-1833 urteen artean, pilota modernoaren atariko partidak jokatu zituzten Ipar Euskal Herrian, Nafarroan, eta batik bat Gipuzkoan, baina, azpeitiar pilotarien aipamenik ez dagoela esan du. 1833. urtean, ordea, gutxienez bi azpeitiar aritu ziren pilotan Bilbon. "Urte hartan bota zituen pilota modernoak bere lehen zainak Bilbon, eta han baziren bi azpeitiar, behintzat: Mariano Judes eta Bernardo Iturriaga. Orduan, Bilbora joaten hasi ziren pilotari batzuk, eta partidak jokatzeko; nobedadea zen hori. Aurrez, noizik eta behin partida bat jokatzeko zuten, eta hurrengoa, igoal, handik sei hilabetera. Bilboko Areatzan, ordea, astean bizpahiru partida jokatzeko hasi ziren, eskularruz". Denbora gutxira, lehenengo gerra karlista hasi zen, eta pilotaren garapenak "ataka" izan zuen.

Gerra bukatu ostean, pilota "suabe-suabe" arnasa hartzen joan zen, eta besteak beste, Madrilen Chamberiko trinketearen jokatzeko zuten askok; tartean, 1848an, azpeitiar pilotari bat bazen, Ibero izenekoa. Handik bi urtera, Azpeitiko pilotak lehen urrezko aroa bizi izan zuen, Oterminen hitzetan: "XIX. mendearen bihotz-bihotzean, 1850eko abuztuaren 16an, Donostian, Azpeitiko laukote batek



Joxe Mari Otermin, Donostiako Aiete auzoko parkean. NEREA URANGA

Andoaingo, Oiartzungo, Lazkaoko eta Tolosako beste laukote baten kontra jokatu zuen, eta azpeitiarrak izan ziren nagusi, 11 eta 8. Garaiko kronikek kontatzen dutenez, goizeko hiruretarako hasi zen pilota partida hura ikusteko jendea biltzen; hiru mila ikusletik gora batu zirela eta batzuk ezin sartuta gelditu zirela diote". Pilota partida hark berebiziko garrantzia izan zuela dio amezketarrak, eta horren erakusle da garaiko bost egunkaritan eman zutela haren berri: *Donostiako Herald* de *San Sebastian*-en eta *La Cronica de Guipuzcoan* eta Madrilgo *El Heraldon*, *La Nacion*-en eta *La Epocan*. Azpeitikoak zirela bai, baina pilotarien izenik ez da azaltzen.

Urte gutxira, 1857an, *El clamor público* egunkarian esaten da, badela Azpeitiko 17 urteko pilotari bat "*de contextura delicada*", aurrenekoz plazaratu Donibane Lohizunen eta Ipar Euskal Herriko pilotari trebeenen kontra partida ikusgarriak jokatu, diru asko irabazi zuena. "Pilotari ona zetorrela ere aipatzen du egunkariak", nabarmendu du Otermin. Handik bost urtera, 1862an, Donostian jokaturako pilota partida bati buruz Juan Jose Alkain *Udarregi* bertsolariak aterako bertso paperei esker jakiten da pilotari gazte azpeitiar haren berri: Ignazio Mari Eizagirre Arrizabalaga *Bautista* zen. "1840ko otsailaren 2an Azpeitiko trinketea sortu zen pilotari hura. Pilotari paregabea,

nola luzean hala errebotean, eta Udarregik esanda bezala, baita trinketea ere. Oso bertso politak dira Udarregirenak. *Bautista Azpeitiko Txikia* edo *Txikito de Azpeitia* bezala ezagutu zen, eta oso famatua egin zen. XIX. mendearen bigarren zatian pilotari onena edo onenetakoa izan zen, eta besteak beste, Manuel Uztapide *Urtxale* oiartzuarrari irabazi zion".

"Izarra" izan zen Bautista, eta hari esker Azpeitiak izena hartu zuen "pilota zaharrean". Azpeitian jokaturako pilota partida "oso famatu bat" aipatu du Otermin: "1858an abenduaren 29an jokatu behar zen plazan, baina euria tarteko, 1859ko martxoaren 3ra atzeratu zuten, eta izugarrizko jendetza



Gregorio Lizurume pilotariaren irudia (ezkerrean) eta Francisco Alberdi Baltasar eta Juan Jose Ezeiza Mardura pilotarienak (eskuinean). Beheko irudietan, Juan Jose Alkain Udarregi bertsolariak jarritako bertsoak 1862. urtean jokaturako pilota partida bati buruz.

AUÑAMENDI ETA AUSPOA LIBURUTEGIA

(1862)

PELOTA-PARTIDUAREN BERTSOAK

Onako bertso onak *Argia* aldizkarian argitaratu ziran, 1933 urteko maiatzaren 14'an eta 21'an.

Apirilaren 30'an, Norteamerika'n (Mountain Home, Idaho) zegoan euskaldun batek eskatu zituan, *Argiak* zuan "Galde-erantzuerak" zeritzaien atalean; eta *Aingeru* idazleak bialti zituan, atal ortan bertan argitaratzeko. Zortzigarrena ez omen zekian *Aingeru* dalako orrek.

1/ Milla zortzireun eta irurogei ta bían, bertso berriak jartzen orain naiz abian; pelotariak izan dira Domostia'n, fama zabaldu bear det España guztian.

2/ Zazpi espasolkein Mateo frantzea, partiduba orretan izan da trabesa; arrikatua bada zenbait interesa, irabazi duanak aprobeitza beza.

3/ Irutatik bi bazan frantzesaren bando, trabesa doblatuban sai ziran sendo; aspeitiarra dago jo gahia fondo, orren fabore zana atera da ondo.

4/ Mateo ta Urtxale irundar batekin, langarrena Arrasko or ruten berekin; Bautista ta Zirilo, Ekerra eta Joakin, orra zein diran esan nai dubenak jakin.

5/ Pelota aidian artzen frantzesaren maña, indarrak artzen dio nai duan tamaña, hadakiela nago diabruak aña, oraingua galdu du abilla da baña.

6/ Manuel Urtxale'ko ez dago tontua, plazara joan liteke jaun orren kontuá, ezaguera ona ta joera prontua, zartnagatik danka gorputz sueltua.

7/ Irundar sakalari oriekin zanak listo egiten ditu pelotaren lanak; artarako apropos egiña du amak, meresi ditu eta artu ditzan famak.

14/ Biha aspeitiarra, portatu da oso, graduatan geitxoro (sic) biar degu jaso, partida irabaziya ari dala kaso, berriz jokatzeko ere daude animoso.

15/ Askok espero zuten frantzea nagusi, hañan aspeitiarrak dio irabazi; oriekek desoratsen ez edozein sai, tamaña artako asko nik ez det ikusi.

16/ Oiek pelotariyak zaizkigu etorri, badakite plazako zirkilluen berri; orren goien-barrenak ongi dira neurri, txiripa asko pasa zioten alkarri.

17/ Guztia egin dira ogei ta host foko, lutzapen izan da cuarenta pranko; bajaten zan hepo; nua hiltateko beste zortzi orrelako?

18/ Kintze batez plazako oien ibillera, host bira pelotak gizon korrituak; batzuk ez dirade galtzak herriak, beste asko badira ondo geldituk.

19/ Oiek eman dituzten arrakastuak gizon korrituak; batzuk ez dirade galtzak herriak, beste asko badira ondo geldituk.

20/ Jaun oieiri graziyak euskara klaruan eman biar zaiztela gendukan gagan, komeni ere bazan nola eman nagan... Udarreiren sermoia orra nun dagan.

(1) Zenbait tokitan, ez degu *Argia*'n dagoan bezela jarri, gaizki zegolako usteon:
5/3: indar artzen dio zion; urtego eraz dagoanek jarri degu: indar artzen dio.
7/2: oriekin lanak zion; pote beraz; oriekin zantuk jarri degu, urtego eraz dagoanek.
9/5: beusak jarritzeko zion; nabarmen dago bertso jarritzeko bear duala.
10/2: beus zion; berez esan bear du noski.
Naparroko Letitz'ko Gorritena laseriko altuak aietako amak bertso zekizkian, eta bere bidola Maria Josefa Zestauk Kopiatu ta bialdi zizkigun. 10 bertso oiek, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 10, 12 ta 13 garena dira, hañan beste orden onetan: 1, 4, 2, 3, 10, 5, 6, 12, 13 ta 7.
Aldaketak: 2/3: partidub orrentante; 2/5: arrakastu ere bai; 3/1: Irutituan biak; 3/6: poderan lay; 4/3-4: Arreko Benstara — an zuan berekin; 4/7: orra esan zein diran; 5/1: Pelota bolera artzen; ezaguera aundia; 6/1: Urtxaley oti ere; 6/5: sakalari; 7/6: egiña da amak; 10/5: Joakin ez det; 10/8: beusak ta biñta; 12/3-4: argana dijoak — ark bada tokia; 12/5: kintze ondo arte; 13/3: malarin baduka; 13/5: au ukitu ezkerre; 13/7: zenbait eman dio.

8/

9/ Oiek onak ziran da bestiak obiak, guztia dira gizon kupira gabaki; bertsoak jarritzeko badira bidaki, arritu gaitute oien abildadiak.

10/ Aspeitiar ori da berez trinketista, luze eta errebota ona da Batista; ez det esan biarrik, begira egon naiz-ta, ez daduzka galdusak besua ta biñta.

11/ Ziriklok jokatu du egoki ta fuerte, baduela derizkiot batek sinbat parte; pelota argandikan etzebillan aparte, alegiña egin du partida dan arte.

12/ Ezker orrek daduka golpe egokia, argana dijoana dago errukia; izaten hadu ondo artzeko tokia, kintze arek izaten du deskantsu txikia.

13/ Joakin sakalaria pelotari fiña, badauka malizia gizon baten diña; arek neurritu ezkerre kintzia jakifia, zenbaiti egin dio sabelko miña.

bildu zen. Bertsoak ere jarrita daude partida hartaz, oso kronika polita eginez".

Zer da pilota zaharra?

"Oraingo errebotea esaten dena edo oraingo laxoan eskularruarekin jokatzen zutena. Sasoi hartan, izugarritzko isileko borroka zegoen zuzeneko jokoaren eta pleka edo hormaren kontrakoaren artean –orain ezagutzen dugun pilota modua–; batzuek zaharra –laxoa eta errebotea– estimatzen zuten, eta beste batzuk, berriz, frontoiko horma estimatzen hasita ziren. Zuzeneko jokoan izarretako bat zen Azpeitiko Txikitoa".

Azken gerra karlista bukatu ostean, eskuzko pilota besteen gainetik nagusitzen hasten da, eta horretan zeresana izan zuen, Oterminen arabera, Indalecio Sarasketa *Eibarko Txikitoa* pilotariak. "Eibarko pilotaren harrobia aberatsa zen, eta Euskal Herrian Eibarko pilota harrobiari kontra egingo zion bakarra Azpeitikoa zen. Eibarko Txikitok 16 urterekin garai hartako pilotari onenen kontra bi partida irabazi zituen, eta jainkoa bezala hartu zuten. Oso atzean geratu ziren eskularrua eta errebotea, eta eskuzkoa hasi zen nagusitzen. Garai hartan, Espainian espektakuluaren munduan lau erreferente ziren: Lagartijo eta Frascuelo toreatazaileak, Julian Gaiarre tenorra eta Eibarko Txikito".

Eibarko Txikitok, ordea, kontrako erreferente baten beharra zuen "bere dohainak" erakusteko, eta Azpeitian bazen pilotan harrobi aberatsa: "Eibarko Txikitori aurre egin zionetako bat Gregorio

Lizurume azpeitiarra zen. Sei bat partida jokatu zituzten elkarren kontra, 1884an. Aurrenekoa frontoian jokatu zuten eskularruarekin, eta azpeitiarra izan zen garailea. Durangon [Bizkaia] zestaz bi partida famatu jokatu zituzten, bakoitzean gutxienez lau mila ikusle bilduz. Gero, Txikito palaz eta Lizurume txisteraz jokatu zuten beste bat; baina, 22 eta 27 Lizurume irabazten ari zela, min hartu zuen eta bertan behera utzi zuten. Eibarko Txikitok Euskal Herriko plazak irabazi zituen, hein handi batean, Lizurumeri irabazi ziolako, eta behin ospea irabazitakoan Ameriketara joan zen Eibarko Txikito".

Lizurumez gainera, garai hartan Azpeitian "mutur-muturreko" beste pilotari batzuk ere baziren, Oterminen azaldu duenez: Frantzisko Timoteo Alberdi *Baltasar*, Juan Jose Ezeiza *Mardura*, *Uranga I* eta *Uranga II* (Uranga Judez), Felix Artiz eta Jose Iartza *San Juan*".

Arkitektura eta literatura

Pilotarien harrobia bai, baina urte haietan zenbat frontoi zeuden Azpeitian? Hala dio Oterminen: "Zaharrena frontoi luzekoa zen, pilotalekua zena. Horrez gain, Udarregik esan digu Azpeitiko Txikito trinketista zela, Azpeitiko trinketea jaiotakoa; beraz, trinketea ere bazegoen. 1828-1830 urte artean, berriz, Azpeitiko Udalak frontoia egiteko erabakia hartu zuen, eta hori egun Frontoi Txikia den tokian izango zen. Gainera, 1880ko hamarkadan Azpeitiko jendeak –dirua

zuenak, noski– ekimen pribatuz, pilotaren alde lan egiteko frontoi handi bat egitea erabaki zuen".

Pilota modernoaren hastapenetan, 1848an, Madrilgo Chamberi auzoko trinketea Ibero izeneko trinketista azpeitiarra azaltzen da. Horrez gain, iberotarrek, badute pilota munduarekin nolabaiteko beste lotura bat ere, Oterminen azaldu duenez: "Francisco Ibero [1724-1795] azpeitiarrak XVIII. mendean Euskal Herriko hiru frontoien arkitekturaren ardura izan zuen: Elgoibarkoarena –ziur asko Euskal Herriko zaharrena dena–, Ermukoarena eta Mutrikukoarena".

Pilota eta literatura lotuz, berriz, inoiz pilotaren gainean egin den "literatur lanik handiena" Miguel Unamunok egindakoa da, Oterminen ustez. "Unamunok Baltasarrek eta Mardurak Eibarko Txikitoren eta Elizegiren kontra jokaturako partida bat kontatzen du bere lanean. Historian literaturara eraman den partidarik famatuenean bi azpeitiarrak ziren, eta beste bat, gutxienez, erdi azpeitiarra; Bizente Elizegi sortzez erreteriarra izan arren, azpeitiar batekin ezkondu, Azpeitian bizi zen".

Gustura jardun du Oterminen pilotaren historia txikiei tiraka, historiaren puzzlea saretzen. Eta "atrebentziaz", Azpeitiak eta azpeitiar pilotariak egindako historia bateren batek "modu serioan" biltzeko modukoa dela uste du: "Gai potoloa, lodia eta sakona da, eta Historia ikasi duen azpeitiar gazteren bat animatu dadila gai hau serio aztertzea, oso polita da eta". ■■■

SOKA LUZEAN



AMAIA ALBERDI

Gau gorrian lasai hegan

Harrigarria da. Harrigarria da egunaren azken orduetan, gaua iritsi baino lehen, animalia horien hegaldiak ikustea. Era oso berezian egiten dute hegan, bizi, eta aurrean ezin den nondik norakoan. Ugaztunen taldean hegan egiteko gaitasuna duten animalia bakarrak dira; gainera, ez edonola: ultrasoinuak igortzen dituzte, eta horien oihartzuna darabilte iparroratz modura.

Aspaldidanik gaizkiarekin lotu izan da saguzarra, baita heriotzarekin eta odolarekin ere. Gure etsaitzat kontsideratu da urte askotan; horren adibide da euskarazko animalia horren *saguzar* izendapena bera; izan ere, agerian darama *-zar* gutxiespenekoa. Alabaina, usteak erdia ustel.

Saguzarren gehiengoak %70a-intsektuz elikatzen da. Jatun onak dira, gainera, beren pisuaren herena gau bakar batean irents baitezakete, bakoitzak 3.000 bat eltxoko otordua eginez. Hori dela eta, izurrien kontrolerako aliatu bikaina da saguzarra. Kopuru txikiagoetan, baina badira fruta, nektar eta polenaz elikatzen diren saguzarrak ere. Talde horren garrantzia erabatekoa da, saguzarren hegaldiak hazien sakabanaketa eta polinizazioa

egiteko erabiltzen baitira. Bestalde, saguzarren gutxiengo bat animalia txikiagoz elikatzen da, eta soilik hiru saguzar espezieren elikagai iturria da odola.

Galtzeko arriskuan dago Euskal Herriko saguzarren gehiengoak. Ondorioz, hainbat adituk azpimarratu dutenez, guztiz beharrezkoa da saguzarren atsedenekuak eta jokabidea babesteko neurriak hartzea. Neurri horietan eraginkorrena kobazuloetan pertsonen duten joan-etorria erregulatzea izan da; kasu batzuetan, bertako saguzarren egoera larria dela eta, kobazuloen sarrerak ixteko babes neurriak ere hartu izan dira.

Hego Herbehereetako Nieuwkoop herrian, ordea, kobazuloak ixteaz haratagoko babes neurriak hartu dituzte saguzarren mesedetan. 27.000 biztanleko herri horretan, uhin luzera luzeko argi gorriak saguzarren jokabide gautarrean gutxiago eragiten duenez, kaleetako argiteria ia dena gorria da.

Gizakion loadian ere badu eraginik argi gorriak; uhin luzera luzeko argi horrek erlaxatu egiten gaitu eta loaldi sakonagoak errazten dizkigu. Guztia probatzea da, edo? ■

BOTEPRONTOAN



IGNACIO ARAKISTAIN

Itzulerako partida

Politikagintza eraso trukaketa neurrigabea bilakatu den garaiotan, batek abila izan behar du suzko errobera komunikatiboek eragindako ke lainoen atzean ezkutatzeko dena begiztatzeko. Izan liteke alderdi bat serioagoa –itxuraz, sikiera–, baina joko zelaian ez bada zikitzen, zaila izango zaio hiritarrak limurtzea. Kudeaketa ala ideologia, eraikuntza edo debaluazioa. Bitarra da egun guztia, kendu baitzaio grisen eskala amaigabeari lehen izan zezakeen balorea eta ideia hertsia biguntzeko ahalmena. Joan den maiatzeko udal eta foru hauteskunde kanpainak garbi erakutsi zigun zenbait diskurtsok egun merkatu sozialean duten kotizazioa; bateko ETaren garrantziak zein goitituak ziruditen gaiek izaniko fokuak baieztatu ziguten esanikoa.

Kirol txapelketa gorenaren gisan, ordea, ez du partida batek bakarrik erabakiko irabazlearen izena. Uztailako eguzki galdatan, itzulerako partida jokatu beharko dute arerio elektoralek. Gauzatua defendatzea, barruko lidergoak berrestea, negoziaketak baldintzatzea. Atakea eta ataka estua. ■

BADATOR UDA!

Eskuratu GUKA produktuak



GUKA

Informazio guztia: www.uztarria.eus/denda/



TicketBAI

FAKTURAZIO SOFTWAREA

Irtenbide pertsonalizatuak,
prezio egokituak



www.softekin.com

FAKTURAK EGITEN BADITUZU, BEHARREZKOA DUZU